


Eraikitzen aniztasunean parte hartzeko espazioak

*Parte-hartzearen eta hiritartasunaren
eremuan Ellacuria Fundazioak dituen
esperientzien sistematizazioa*



ELLACURIA
FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

Eraikitzen aniztasunean parte hartzeko espazioak

*Parte-hartzearen eta hiritartasunaren
eremuan Ellacuria Fundazioak dituen
esperientzien sistematizazioa*



**ELLACURIA
FUNDAZIOA**
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

Erakunde hauek batera finantzatutako proiektua:



Argitaratzailea:



Bilbao

Arrupe Etxea

Aita Lojendio kalea2 - 1. E.

48008 Bilbao

Telefona 944 465 992 - Faxe 946 070 951

info@centroellacuria.org

www.centroellacuria.org

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Aurkibidea

Eskerrak	5
I. Sistematizazioa	7
Zergatik sistematizatu?	9
Zer sistematizatzen dugu?	9
Nondik egiten dugu?	10
Zein da gure proposamena?	10
Nola sistematizatu dugu?	11
2. Bertako gunea: Bilbo eta Getxo	13
2.1. Elkartzeak indartzeko proiektua Bilbon	15
Hastapenak. Zeintzuk izan ziren hurrengo pausuak?	17
Azterketa	18
Zeintzuk dira esperientzia honen kolektibo protagonista?	34
2.2. Sentiberatze- eta indartze-proiektua Getxon	37
Hastapenak. Zeintzuk izan ziren hurrengo pausuak?	40
Azterketa	41
Zeintzuk dira esperientzia honen kolektibo protagonista?	56
2.3. Ondorio modura: ulermen-gakoak eta etorkizunera begira	57
egin beharreko ikaskuntzak	

3. Sareez osaturiko espazioa: “Munduko Jendeak Jaialdia” egitasmoaren esperientzia	61
Hastapenak. Zeintzuk izan ziren hurrengo pausuak?	65
Azterketa	66
“Munduko Jendeak Jaialdia” egitasmoan aurkeztu diren ekintzak	66
Eginkizunak eta espazioak	68
Gaitasunak	70
Etorkizuneko erronkak eta helburuak	71
Ondorio modura: ulermen-gakoak eta etorkizunera begira egin beharreko ikaskuntzak	73

Taulen aurkibidea

I. Taula. Laguntza- eta indartze-prozesuaren garapena eta kudeaketa	19
II. Taula. Parametroa: Aktoreen arteko harremana	22
III. Taula. Parametroa: Ikaskuntza-prozesuak	26
IV. Taula. Parametroa: Etorkizuneko erronkak eta helburuak	32
V. Taula. Parametroa: Laguntza- eta indartze-prozesuaren garapena eta kudeaketa	42
VI. Taula. Parametroa: Aktoreen arteko harremana	46
VII. Taula. Parametroa: Ikaskuntza-prozesuak	50
VIII. Taula. Parametroa: Etorkizuneko erronkak eta helburuak	55

Eskerrak

Ellacuria Fundaziotik eskerrak eman nahi dizkiegu immigrazioaren arloari lotutako elkarte eta elkarlanean ari garen udaletxeetako teknikariei, beraien lan, partehartze eta motibazioagatik. Azken urteetan jorratutako biderik gabe esku artean dugun lan hau ezinezkoa litzateke.

Bereziki, sistematizazio lan honetan partehartze zuzenagoa izan duten hurrengo pertsona eta elkarteei eskertu nahi diegu ekarritako informazio, hausnarketa, bizi-pen eta ezagutzagatik;

- ARVAS elkarte.
- Guine Bizkaia elkarte.
- Pablo Neruda elkarte.
- Pagkakaisa elkarte.
- Sikap elkarte.
- Adrebol elkarte.
- Rodela elkarte.
- Ammig elkarte.
- Acabiz elkarte.
- Caritas Diocesana de Bilbao.
- Bilboko Udaleko Claudia Enmanuel Immigrazio Teknikaria.
- Bilboko Udaleko Begoña Cortazar Immigrazio Bulegoaren burua.
- Getxoko Udaleko Ekain Larrinaga Immigrazio Teknikaria.
- Barakaldoko Udaleko Jone Pariza Immigrazio Teknikaria.



I. Sistematizazioa

Zergatik sistematizatu?

la zentroa ireki zenetik Ellacuria Fundazioa egiten ari zen lanaren garapenak berak parte-hartze esparruetan garatzen ari ziren lan-esperientziei buruzko hausnarketa eta analisia eskatzen zuen, nolabait. Behar hori abiapuntu, elkarteen parte-hartze espazioen eremuan **esperientzien sistematizazioa** gauatzeko aukera azaldu zuen Fundazioak.

Esperientzien sistematizazioaz mintzatzen garenean, ez gara datuak eta informazioa antolatzeaz eta sailkatzeaz soilik ari, bai eta gauzatu diren esperientziak prozesu historiko gisa begiratzeaz ere; prozesu konplexuak, hainbat aktoreren parte-hartzea dutenak eta, gainera, jakineko testuinguru sozio-ekonomikoetan gertatzen direnak. Esperientzien sistematizazioaren azken xedea da, beraz, prozesuaren garapenaren modu eta erak ulertzea eta interpretatzea. Horrela, prozesuaren beharrezko berreraikuntzaz gain, ikasketa berriak eskuratzea ahalbidetzen duen **interpretazio kritikoa** burutu behar da, elementu objektibo zein subjektiboak gehituz.

Zer sistematizatzen dugu?

Gure proposamena, hemen azaltzen duguna, elkarteen parte-hartze eremu batzuetan Ellacuria Fundazioaren 2007 eta 2010 arteko esperientzia jasotzea da; eremu horietan parte hartzen du, bai eta esku hartzen ere, gure metodologiei eta interbentzio- eta laguntza-estrategiei buruzko ezagutza sortzeko eta zabaltzeko.

Zehatz-mehatz, Fundazioak esku hartzen duen elkarteen parte-hartze eremuetako hiru aukeratu eta zedarritu dira; aurreneko bietan hainbat proiektu zehatzen bidez hartzen du parte, eta hirugarrena kultura arteko festa-gune bat da.

1. Bilbon jasagarritasun sozialari begira, atzerritar imigrante-taldeek elkartzeak indartzeko proiektua.

2. Sentsibilizatzeko eta indartzeko proiektua Getxoko Udalaren eta Ellacuria Fundazioaren lankidetzaren esparruan.
3. Munduko Jendeen Jaialdia.

Baina hiru gune horietan sartu eta beren historia, praktikak eta esperientziak sistematizatu aurretik, Ellacuria Fundazioa zein den azaltzen saiatuko gara, gure helburua baita geroago espazio eta egoera zehatzagoetan garatzen eta gauzatzen diren parte-hartze ekimenak, praktikak eta esperientziak beren testuinguruan azaltzea eta beren ulermen-esparrua aurkeztea.

Nondik egiten dugu?

Azken urteotan, euskal gizarteak aldaketa sakonak eta esanguratsuak bizi izan ditu, eta horietako batzuek munduko hainbat lekutatik iritsi diren pertsonekin zerikusia dute. Esan dezakegu gaur egun munduan gertatzen diren pertsonen joan-etorriak direla gure mendebaldeko gizartearen aldaketaren eragile nagusietako bat. Zehatz-mehatz, Euskadiri dagokionez, azken urteotan imigranteak jasotzetik pertsona horiek gure artean bizitzen geratzera pasatu gara, eta orain gure bizikide berriak ditugu¹. Finkatze-prozesuak gertatzen diren heinean, jatorri desberdinetako pertsonak batzen eta antolatzen hasten dira, eta, horrela, imigranteen elkarte-ehuna sortzen hasten da. Elkarte-espazio hori, hain zuzen, finkatze horren adierazle da, bai eta emigranteek bizi diren gizarte berrian parte hartzeko duten gogoarena ere, gizarte horren baitan herritarrak eta bizikideak diren heinean. Testuinguru horretan sustatu zuen Jesusen Lagundiak Ignacio Ellacuria Gizarte Gunea, ordurako immigrazioen esparruan lanean ari ziren erakundeekin lankidetzan aritzeko helburuarekin, bai eta ekarpen berezitua emateko asmoarekin ere, ekimenaren erakunde sustatzaileen ezaugarriak kontuan hartuta (Loiolako probintzia, CVXen lankidetzarekin).

Zein da gure proposamena?

Zehazki, Ignacio Ellacuria Gizarte Gunea Bilborako eta Bizkairako gizarteratze-proposamen gisa sortu zen, migrazioaren gizarte-esparru berrian, honako bitartekoak erabiliz:

- Migrazio-prozesuei eskainitako laguntza.

¹ Hala ere, irakurleak ez du ahaztu behar gizateriaren historian mugimendu migratzaileak etengabeak izan direla, eta, horregatik, gure espeziearen ezaugarrietakoa da hori: *Homo Migrans* gara. Euskadiren kasuan ere, ezin ahantzi ditzakegu XIX. mende amaieran eta XX. mendean zehar gertatu ziren migrazio-mugimenduak.

- Imigranteak beren elkarteetan elkartzea eta beren parte hartzea indartzea.
- Eragin soziala eta politikoa, sentsibilizazio kanpainen, topaketa gelen, tailerren eta jardunaldien bitartez, besteak beste.

Proposamen horrek hainbat printzipio sustatzeko asmoan dauka sorrera: hainbat balio kultural, sozial eta erlijiosoen arteko berdintasuna, ardura eta elkarriketa. Elkar aberasteko migrazioaren gizarte berriak planteatzen dituen topaguneak sustatzeko baliagarria izatea nahi da, eta hor pertsona- zein talde-mailako hazkunde-, aldaketa- eta eraldaketa-prozesuak azpimarratzen dira, pertsona guztiek behar baitituzte, bertakoak edo jatorri migratzailedunak izan.

Jarraian, aurkibide bat aurkeztuko dugu, gida moduan, eman ditugun urrats nagusiak, bai eta lortutako emaitzak ere identifikatzeko irakurleari baliagarria izango zaiona.

Nola sistematizatu dugu?

Ibilbide metodologikoa

Behin gure burua aurkeztuta, datozen lerrootan sistematizazioa burutzeko erabakia hartuz gero emandako urratsak azaltzen ahaleginduko gara. Aurreneko erabakia, aurreko orrietan aurreratu duguna, sistematizatu behar ziren esperientziak zehaztea izan zen. Behin erabaki hori hartuta, sistematizazioari ekin zitzaion, esparru metodologikoari dagozkion honako urrats hauetatik abiatuta:

- turriak berrikustea: batetik, dokumentu teorikoak², sistematizatzea zer den zehatz-mehatz aztertzen dutenak; eta, bestetik, hainbat gairi buruz ordurako eginda zeuden sistematizazioak³. Ikuspegi bikoitz horretatik, teorikoa zein praktikoa, benetan sistematizazio-prozesua dei genezakeena hastea ahalbidetuko ziguketen eremua eta tresnak lortu nahi genituen.
- Ellacuria Fundazioak berak sortutako iturriak eta dokumentuak berrikustea, sistematizatu beharreko esperientziei buruzkoak.

² Bereziki esanguratsuak izan dira Chávez-Tafur, J. (2006): "Aprender de la experiencia. Una metodología para la sistematización", Fundación ILEIA/Asociación ETC Andes; Jara H.O (2001): "Dilemas y desafíos de la sistematización de experiencias", Seminario ASOCAM, Intercooperation, Bolivia; eta Eizaguirre, M.; Urrutia, G.; eta Askunze, C. (2004): Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeko gidaliburua. Alboan, Hegoa eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua.

³ Bereziki oso interesgarria izan da Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak argitaratutako sistematizazio sortak berrikustea.

- Aukeratutako hiru esparruetan sistematizazio-prozesuaren eragile diren subjektuen alde aurreko diagnosia egitea.
- Ezarri beharreko tresna metodologikoen diseinua egitea: elkarriketak, pertsonalak zein taldekoak, eta tailerrak. Elkarriketetako gidoiak landu eta tailerretan garatu beharreko urratsak eta dinamika eztabaidatu ziren.
- Ordura arte sortutako materialak biltzea eta berrikustea. Sistematizazio-prozesuak egituratzen hasteko zein ardatz behar ziren erabaki zen, bai eta informazio gehiago zein leku edo gaitan behar zen ere.
- Hainbat protagonistarekin izandako harremanak berreskuratzea: izaera irekiko elkarriketak egin zitzaizkien berriro, informazio-gabezia konpontzeko helburuarekin.
- Ordura arte bildutako materiala berrikustea eta aztertzea, sintesia burutzeko, eta esperientziara, garatutako ekimenetara eta lorpenetara kritikoki hurbiltzeko.
- Azken dokumentua idaztea.

Horiek izan dira, oro har, sistematizazio-prozesuan emandako urratsak. Sistematizatuak gune bakoitzari heltzean, bai protagonisten bai esperientzien sistematizaziorako sortutako prozesuen zehaztapen handiagoa egingo dugu.



2. Bertako gunea: **Bilbo eta Getxo**

2.1. Elkarteak indartzeko proiektua Bilbon

Proiektu horren sorburua, aurreko orrietan ikusi dugun moduan, migrazio-egoera berri batek baldintzatutako testuinguruan kokatzen da. Izan ere, 1998tik 2008ra doan epean gure gizarteak jatorri atzerritarreko pertsona-kopuruaren hazkunde nabarmena izan zuen. Espainiak jasan zuen eraldaketa -herri emigrantea izatetik, denbora gutxian, immigrazioa jasotzen zuen herrialdea izatera pasatu baitzen-, hirurogeita hamarrekota hamarkadaren amaieran gure herriak izan zituen eraldaketa sakonak kontuan hartuta aztertu behar da, imigranteen jatorriko herrietan gertatukoak kontuan hartzeaz gain. Ekonomiaren nazioartekotzearen bidez, demokrazia-ra bideratutako trantsizioak kanpora irekitzeko aukera eman zion Espainiari, gero eta gehiago globalizatutako sistema batean. Hazkunde ekonomiko handiak eta hori bezain garrantzitsua izan zen eraldaketa politikoak aldaketa sozioekonomiko sakon eta azkarrek ekarri zituzten. Lan-merkatua berregituratzen joan zen, eta hainbat lanetarako imigranteen eskaria hazten hasi zen, lan horiei bertako biztanleek muzin egiten baitzieten, aurreko belaunaldiak baino hobeto prestatuta baitzeuden eta errenta-maila altuago baitzuten.

Ordutik aurrera, testuinguru sozial berria sortu zen, eta jatorri oso desberdineko pertsonak, arazo gehiago edo gutxiagorekin, lan-merkatuan sartzeaz gain, gizarteratzen ere hasi ziren herri eta hiri askotan. Testuinguru berri horretan, etorrerako gizartean hiritar gisa parte hartzeko asmoa zuten imigranteak laster hasi ziren elkarteak sortzen, eta, gainera, beren eskaerak, beharrak eta afektuak, neurri handi batean, elkarte horien bitartez bideratzen zituzten.

Egoera berri horren aurrean, Ellacuria Fundazioak laster egiaztatu zituen, bere egin-kizunetan hasi orduko eta zuen esperientziari esker, elkarteak osatzeko ekimenak garatzeko zeuden zailtasunak. Zailtasun horiek sortzen ziren, besteak beste, lekurik ez zegoelako, zeuden lekuak imigrante-taldeek beharretara ez zeudelako egokiturik, eta lekuak erabiltzeko betebeharrak ezin zituztelako bete. Lekuen eta horien erabileraren kontuaz gain, pertsona eta elkarte askok zailtasunak zituzten beren ekimenak planifikatzeko eta kudeatzeko orduan, ez baitzuten horretarako barne-egiturarik, ez eta gizarte osoaren mesederako jarduerak aurrera eramateko gai izango ziren proiektuak lantzeko eta estrategiak diseinatzeko ere.

Hain zuzen ere, behar horiek bultzatuta planteatu zuen Fundazioak Elkarteen Indartze Proiektua, elkarrekin elkarlanean, honako lan-ildo hauek aurrera eramateko:

- Elkarreei beren lanerako leku seguru eta egonkorra, eta baliabide teknikoetara sarbidea eskaintzea.
- Horrelako ezaugarriak zituen elkarte baten planifikaziorako eta kudeaketarako tresnez jabetzea eta tresna horiek abian jartzea, eta, horrekin batera, etorrerako gizarreak eskaintzen zituen baliabideak eta ekimenak ahalik eta ondoen ezagutzea, hala nola bere esparru sozialak eta administrazio publikoak.
- Jatorriko beren elkarte esperientziak gizarteratzea.
- Sarean lan egitea.

Azkenik, Ellacuria Fundazioaren proiektua bereziki jatorri imigrantetun pertsonen benetako hiritartasun-estatusa sustatzeko sortu zen, beren elkarten parte-hartzearen bitartez, bai eta beren eskubideak erabiltzeko bitartekaritzaren, orientabidearen eta pertsona- zein talde-mailako indartzearen bitartez ere.

Ikuspegi horretatik, eta aipatutako helburu eta proposamenekin, proiektua urrats edo prozesu batzuk jarraituta garatzen ari zen, orain labur deskribatuko ditugunak:

1. Aurreneko fasea, harrera edo harremanen hasiera: elkarreetako ordezkariekin eta Zuzendaritzako kideekin bilerak egiten ziren. Era berean, bazkide ziren pertsonak instalazioak erabil zituzten gonbidapena luzatzen zen.
2. Elkarteen eta Fundazioaren arteko harremana bi modutakoa izan zitekeela azaltzen zitzairen:
 - a. Hitzarmen bidezko harremana: elkarreen beharrei eta interesei, eta Fundazioarekin sortutako harremanari so eginez, elkarreen eta zentroaren arteko indartze-hitzarmena sinatzea komeni al zen eztabaidatu zen. Behin hitzarmena sinatuta, elkarreak lanerako mahai bat zeukan eta gainerako instalazioak erabil zitzaizkeen, beharren eta aukeren arabera. Hortik aurrera, Elkarteen indartze programa abian jartzen zen: elkarte bakoitzarekin ibilbide-orri bat lantzen zen, eta estrategiak ebaluatzeko, diseinatzeko eta ezartzeko jarraipen-saioak eta tutoretzak egiten ziren. Era berean, elkarte guztiekin asanbladak egiten jarraitzen zen, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko. Hori osatzeko sare-lana zegoen.
 - b. Harreman irekia: harremana eta lankidetzak edukiz, aholkularitza emanez, edo bilerak egiteko lekuak utziz gauzatzen zen. Gehiago edo gutxiago, baina egituratutako

harremana zen hori, eta bere oinarria elkarteek eskatutako kontu zehatzetan laguntza eta orientazioa ematea zen.

3. Bilbon kontsulatu ibiltaria ezartzea bultzatzen zuten elkarteekin lankidetzat. Bilbon bizi ziren jatorri atzeritarrekoek beren kontsulatuetan egin beharreko izapideak erraztea helburu zuen programa zen; era berean, jatorri immigrantea zuten pertsonen elkarten rola indartzeko xedea ere bazuen, beraiek osatutako taldeen eta aipatutako administrazioen arteko bitartekari lanean.
4. Bien artean kudeatutako elkarten eremuko proiektu esperimental batetan laguntza: Fundazioaren ekimenez, horrekin hitzarmena duten elkarteek funts ekonomiko bateratu bat sortu zuten. Proposamen horren ondorioz, 2009 urtean zehar elkarteek beren jarduerak aurrera eramateko gune bat, bai eta plataforma bat sortzea ere erabaki zuten, eta prozesu horren emaitza Kultur Batuak plataforma sortzea izan zen.

Behin indartze programa, hots, sistematizatu nahi dugun esperientzia aurkeztuta, sistematizazio hori gauzatzeko 2007 eta 2010 arteko epea hartu genuen. Era berean, gure sistematizazio prozesuko protagonistak Fundazioa bera, Bilboko Udala eta emigranteen elkarteak izango dira.⁴

Hastapenak: Zeintzuk izan ziren hurrengo pausuak?

Protagonistek buruzko erabakia hartuta eta sistematizazioak iraun behar zuen epea zein izango zen zehaztuta, metodologia bat diseinatu genuen, beharrezkoa zen dokumentazioaz gain, gure protagonisten ahotsak eta esperientziak jasotzea ahalbidetuko ziguna. Urte horietan igarotako prozesuko materiala jasotzea baino garrantzitsuagoa zen prozesu horiek protagonistentzat beraientzat izan zuten esanahian sakontzea. Hemendik abiatuta, erabilitako metodologia izaera kualitatibokoa izan zen; bi elkarriketa ireki egin ziren eta tailer bat eratu zen.

Elkarriketetako bat Fundaziotik bertatik elkarten indartze-proiektua abian jartzeaz eta zuzentzeaz arduratu zen teknikariari egin zitzaion. Bestea Udaleko bi teknikariari egin zitzaion, bai fundazioak bai elkarteek erakunde horrekin egiten baitute lan. Bestalde, tailer bat gauzatu zen imigranteen elkarte batzuekin, eta, ondoren, elkarte horietako kide batzuei egindako elkarriketa irekiekin osatu zen.

⁴ Imigranteen elkarte asko izan dira 2007tik hona Ellacuria Fundazioarekin lan egin dutenak. Batzuk denboran zehar mantendu egin dira eta beste batzuk, hainbat arrazoi medio, desagertu egin dira edo Fundazioarekin zuten harremana eten egin dute. Eranskin gisa 2007tik hona, hitzarmen bidez edo gabe, Fundazioarekin harremanak izan dituzten elkarten zerrenda ematen dugu.



Bai elkarrizketetarako, bai tailerrerako gidoi bat landu zen, honako gai hauez informazioa jasotzea ahalbidetuko ziguna:

- Indartze-proiektuaren historia eta garapena.
- Esperientziaren balioespen orokorra.
- Erronkak eta zailtasunak (baliabideak, komunikazioa, aldiak, bestelakoak, etab.).
- Azpimarra daitezkeen jarduera eta esperientzia partikularrak, bai hauen alderdi positiboak direla-eta, baita hobetu daitezkeen alderdiak direla-eta ere.
- Esperientziaren hiru protagonisten arteko harremana eta komunikazioa; balioespena, zailtasunak, hobetu beharreko alderdiak, etab.
- Elkarateek eta udalak nola hautematen duten Fundazioa.
- Bidea egin eta gero ikasitakoa.

Azterketa

Behin tailerrak eta elkarrizketak eginda, aldi garrantzitsuena hasi zen: azterketa. Hain justu, aldi horrek ahalbidetu behar zigun gertakarien deskripzio hutsetik hurbilketa kritiko batera igarotzea; kasu zehatz honi dagokionez, Ella-curia Fundazioak sustatzen eta garatzen dituen imigranteen elkarteen laguntza

eta indartze prozesua. Horretarako, jasotako materiala, eta tailerrean landu eta elkarriketetan adierazi ziren irizpideak berak sakon berraztertu ondoren, egitura edo esparru gisa baliagarriak izango zitzaizkigun lau parametro nagusi zehazten saiatu ginen. Hortik aurrera, hainbat adierazle identifikatu genituen, parametro nagusi bakoitzeko alde esanguratsuenak zehazten lagunduko zizutenak. Testuinguru hori abiapuntu, prozesuan parte hartu zuten pertsonak esandakotik sistematizazio prozesuaren azterketari ekingo diogu. Azterketa honen emaitza prozesuaren aktoreek beraiek bizitako esperientzietara hurbilduko gaituen testu bat izango da.

I. Taula. Parametroa: Laguntza eta indartze prozesuaren garapena eta kudeaketa		
Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Espazio fisikoak.	Oinarrizko eta lehen mailako beharra aseta.	Bakoitzaren lokalari etekin hobe ateratzea.
Barne antolaketa-rako gaitasuna.	Borondate ona eta prestasuna. Konpromisoa.	Konpromiso handiagoa. Denbora mugak eta pertsonen lege eta lan egoerak. Zuzendaritza aldaketak. Boluntarioak.
Fundazioaren lanabesak.	Informazioa. Laguntza. Bultzada eta akuilua. Eskaerari egokitzea.	

Espazio Fisikoak

Elkarteak eta Ellacuria Fundazioa harremanetan jartzeko prozesuan, elkartzeko eta beren bilerak egiteko leku bat izateko aukera ematea oso garrantzitsua izan zen Fundazioarekin izandako aurreneko harremanetan. Horrela azaldu zuten elkarte batzuek:

"... Eta kezkatuta nengoen, lehenago bilerak egiten baikenituen, baina ez lokaletan".

"... Gogotsu hasi ginen, baina une horretan bajaran geunden eta ez genuen inongo lekurik; lokalen arazoa arazo nahiko zehatza zen, batzuetan bitarteko konponbideak aurkitzen bagenituen ere..."

Fundazioaren eskaintza elkarte horiek biltzeko leku bat eskaintzea baino gehiago izan zen, eta Fundazioaren eta elkartearen arteko harremanaren eta loturaren hasiera bilakatu zen, askotan hitzarmen baten sinaduran gauzatu zena. Badirudi elkarteek beren oinarrizko beharretan laguntzea jokaera egokia izan zela, hortik harreman emankorra eraikitzen hasi baitzen. Horrela adierazi zuten Fundaziotik bertatik.

"... Hasiera batean elkarrekin izan genuen harremana batik bat laguntza materiala eskaintzeari lotu zitzaien (...) baina hori nahikoa ez zela konturatzen hasi ginen, elkarrekin lokal bat izatea, bere horretan, ez zen nahikoa, eta beharrezkoa zena lotuko gintuen eta sinergia sortuko zuen harremana zen, bai zentroari bai elkarrekin onura ekarriko ziona, hortik aurrera biak hazteko".

Elkarteen eta Fundazioaren arteko finkatze prozesu horren zati bat hitzarmen bat sinatuz bideratzen zen; lehenago edo geroago, elkarte askok sinatzen zutena. Hitzarmen hori sinatzeko arrazoien artean, elkarrekin harremana formalizatzeko beharra aipatzen zuten, eta, elkarrekin indartze programan sartuz gero, harreman hori laster hasi zen fruituak ematen.

"Lehenbiziko urtean bileretarako erabili genuen soilik (...) gero, guretzat oso garrantzitsua izan zen programaren barruan egon ahal izatea, konfiantza handia eman zigun, taldea finkatu egin zen (...) Orduan, hitzarmena formalizatzea egokia iruditzen zitzaigun".

Barne Antolaketarako Gaitasuna

Elkarteen eta Fundazioaren arteko hitzarmen hori sinatzea lekuak uztetik edo hainbat baliabide material erabiltzeko aukera izatetik askoz harago doan elkartearen

inguruko konpromisoaren esparruan txertatzen da. Fundaziotik esaten zen moduan, elkarteekin sortutako loturak ahalbidetzen zuen bien garapena, hain zuzen ere.

“... Elkarteen konpromisoa, esan nahi dut, elkarteak ulertzen duenean harremanak elkarri egiten diela mesede, ez bakarrik elkarteari berari, bai eta Ellacuriari ere, elkarteari zein zentroaren ekimenaren garapenari, eta zentroarekin duen interakzioari eta harremanari garapen handiagoa ahalbidetzen dion lotura sortzen da”.

Hala ere, prozesu horretan konpromiso mota hori ez mamitzeko arrazoi edo egoera pila bat azal zitekeen, eta, beraz, batzuetan hitzarmenik ez zen sinatzen. Arrazoi horien artean azpimarratu beharra daude, alde batetik, elkarteetako pertsona askok imigranteak izateagatik partekatzen duten egoerari berari lotuak daudenak, sarri ezegonkorra den egoera, lanari, familiari eta egoera legalari dagokionez, ez baitituzte konponduta edukitzen. Egoera horiek berak, immigratze prozesuaren ezaugarriak direnak, eze-gonkortasuna sortzen dute eta elkarteko presidentzian eta zuzendaritzaren osaketan aldaketa asko ekartzen dituzte. Gainera, badaude alderdi batzuk, elkarteetako pertsona askoren oinarri sozial eza, esaterako, elkarteen eremuko dinamikak ez mamitzean eragiten dutenak. Bai elkarteetatik bai Fundaziotik azpimarratzen den beste arrazoi bat da borondatezko lana dela, eta lan horrek, denbora zein ardurari dagokienez, batzuetan mugak izaten ditu.

“Oro har, borondatezko lan asko egon arren eta garatu beharreko ideia zein ekimenei buruzko oinarri sendoa duten taldeak diren arren, pertsona horiek denbora urria dute eskaintzeko, beren lan-, bizi- eta familia-egoerengatik (...) Eta erreallitate horretan ez dago liberaturik, oso gutxi dira aukera hori duten elkarteak...”.

Fundazioaren lanabesak

Aipatu dugu nola hasiera batean Fundazioaren programa elkarteei laguntza materiala ematera bideratua zegoela, batik bat lekuen erabilerari zegokienez. Dena den, hau guztia harago doa, eta elkarren arteko hazkundea du helburu, bai elkarteena baita Fundazioa berarena ere. Horretarako, Fundazioak, elkarteen errealtateari mesede egiten dioten eta errealtate hori garatzen duten aldagarri batzuen azterketatik abiatuta, elkarte bakoitzarekin proposamen eta hitzarmen bat eratzen

du, bere garapenari begira lehenetsi nahi dituzten esparruetan lan egiteko. Nolabait esateko, elkarrekin “neurrira” lan egiteko modu hori, bakoitzaren behar eta errealitateetatik abiatuta, burututako elkarriketa guztietan azpimarratutako kontua izan da.

“Ellacuriaren proiektuak eskarien neurrira lan egiten duela ikusten dugu (...) modu oso zuzen eta lagunduan, elkarrekin indartzeko beste mota bateko baliabide normalizatuagoek betetzen ez dituzten beharrak betetzen ditu, beharbada oinarri-oinarritik lan egiten duelako (...) Bere alderdi indartsuena moldatzea da, proiektua neurrira lantzen du”.

“Gehiena gustatu zaiguna lur hartzearen kontua izan da (...) laguntza zuzenagoko programa hori horrela egin izanak oinak lurrean jartzera derrigortzen gaitu; helburuak finkatzera, diagnosiak egitera, hausnartzera”.

II. Taula. Parametroa: Aktoreen arteko harremana

Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Komunikazioa.	Administrazioari begira lortutako ezagutza.	Barne komunikaziorako zailtasunak. Lidergo oso pertsonalizatuak.
Elkarren arteko lanaren garapena eta kudeaketa.	Ikaskuntza. Ezagutza. Indartzea. Lotura eta konpromisoa.	Mendekotasun harremanak.

Komunikazioa

Komunikazioaz ari garenean, Fundazioaren, imigranteen elkartearen eta tokiko administrazioaren artean garatzen diren lan, elkarriketa eta topaketa prozesuei buruz ari gara. Testuinguru horretan, elkarrekin kideek Fundazioak izan duen garrantzia azpimarratu dute, hainbat aldiz administrazioaren aurrean bitartekari lanak bete baititu; izan ere, administrazioa ez da beti solaskide erraza, beharbada batzuetan elkarrekin ez dutelako jakiten administrazioak nola funtzionatzen duen. Horrela adierazi du elkarrekin batek.

“Administraziora hurbiltzea erraztu digu. Nora jo eta nola joan behar dugun azaldu digu. Zer aurkeztu behar den. Asko eskertzen dugu”.

Beste komunikazio prozesu bat Fundazioaren eta Bilboko Udaleko teknikarien artean gauzatzen dena da. Oro har, elkarrekin egin den lana eta egon den harremana oso ondo baloratzen da bi aldeetatik. Harremana nolakoa den azaltzeko konfiantza aipatzen dute, eta horrek ahalbidetzen du, hain justu, desadostasunak daudenean, edo bat egiten ez denean, lanean jarraitzea, guztiek handiagoa den eginkizun baten parte direla sentitzen baitute. Horrela adierazten du Fundazioko teknikari batek.

“Nik uste dut hurbiltasuna eta konfiantza dagoela, bakoitzak badaki non ari den lanean, eta hori garrantzitsua da. Bestearen lanari errespetua zaio, ez da bestearen lana blokeatzen, alderantziz, helburu berak ditugun espazioetan elkar indartzen dugu, eta ez ditugunetan, berriz, iritziak trukutzen ditugu egiten ari garen lanari aldeetako bakoitzak besteari zer eskaini diezaiokeen ikusteko”.

Kudeatzeko konplexuena dela dirudien kontuetako bat elkarte bakoitzeko kideen arteko harremana da, hots, elkarte bakoitzeko *ad intra* harremanak. Konplexutasun hori eta sortzen diren zailtasunak azpimarratzen dituzte bai elkarteetako kideek bai Fundazioko zein Bilboko Udaleko teknikariek. Alde horretatik, Ellacuria eta elkarteak elkarrekin egiten ari diren lanak ondorio onak dituztela dirudi.

“Elkarteen mugimenduak dituen zailtasunak lantzen ditu, oso berezituak direnak, esaterako, elkarteetako pertsona batzuen gehiegizko pertsonalismoak saihestearena, alor horiek ahalik eta gehien demokratizatzen ahalegintzearena”.

Interesgarria da aipatzea gehiegizko pertsonalismoak beti ez direla pertsona bakarri dagozkionak, sarri elkarteak azpitalde bati lotuta daude. Barne haustura horiek elkarteak osatzen dituzten pertsonen jatorriko lurraldeko egoera sozio-politikoei lotuta egon ohi dira. Hots, aurretik ezin ulertuak badaude, lehia horiek etorrerako gizartera eramaten badira, arazoak eta gatazkak sor ditzakete elkartearen barruan.

Horrela, etnia edo politika kontuan hartuta eraikitako mugek elkarteak osatzen duten pertsonen arteko komunikazioaren jarioa galaraz dezakete.

“Hainbat etniatakoak gara, eta erabakigarria etnia da, bai herrialdean bai kanpoan. Jende hori ez da irekia. Beren artean bai, baina gurekin ez. Gure etniak herrialde osoa bereganatua duela esaten dute, eta hau edo hori egiten dugula engainatzeko asmoz”.

“Bera esaten ari dena etniari buruz, gure kasuan ezkerrekin eta eskuinekin gertatzen da. Horrela, diote: “hauek erbesteratutako ezkerreko komunistak dira, eta ez naiz elkarteetan sartuko”. Gero, alderantziz, zerbait behar dutenean etorri egiten dira. Gure herrian arazoa ideologikoa da. Lanabes teknikoak beharko genituzke beste modu batera komunikatu eta elkar hartu ahal izateko”.

Horregatik, beharbada egokia da sarri jatorriko gizarteetako egitura sozial eta kulturelekin beraiekin lotuta dauden faktoreek duten garrantzia azpimarratzea. Nolabait, etorrerako gizarteetara eraman diren eta bizirik jarraitzen duten faktore horiek ez dira kontuan hartzen elkarteak begiratzerako orduan. Horrela, ez bakarrik hemen elkarteak osatzen dituzten pertsonen baldintzei begiratzeak, bai eta pertsona horiek jatorrian ziztuzten baldintzei begiratzeak ere lagun dezake hainbat egoera ulertzen, bai eta elkarteek dituzten berezitasunetan hobeto txertatuko diren ekimenak proposatzen ere.

Elkarren arteko lanaren garapena eta kudeaketa

Oro har, elkarren arteko lanaren garapenean eta kudeaketan eboluzioa ikus daiteke, eboluzio hori prozesu luzea izan bada ere, eta tartean ziren alde guztiek parte hartu eta bultzatu beharreko elkarlana dela ulertzea eskatu badu ere. Horregatik, Fundazioko teknikariak konpromisoa azpimarratzen du bereziki, eta egindako ibilbideari baikor begiratzen dio.

“Oro har, elkarteek beren artean harremanetan jartzeko garatu duten gaitasuna, udalarekin hitz egiteko gaitasuna, eta ez soilik teknikariarekin, bai eta beste esparru batzuetan ere (...) maila horietan garapena ikaragarria izan da, gero eta argiago ikusita guztiontzat eraiki behar dela, esan nahi dut, lortu nahi dugunaren eraikitzaile gisa, ez baituzu erakunde moduan pentsatzen, baizik eta nola haz gaitzkeen elkar hartuta...”.

labilbide horretan guztian, elkarteekin eta Fundazioko eta Udaleko teknikariekin burututako lanean gehien errepikatutako elementuetako bat hau izan da: Fundazioaren beraren eta elkartearen artean sor daitezkeen mendekotasun-harremanak deitu diezaiokeguna. Fundazioak bazekien, laguntza-prozesua bera abian jarri zene-tik, elkarteekin mendekotasun-harremanak sor zitezkeela. Horrela, egindako ahale-ginen zati bat bideratu zen, hain justu, jarraibide nagusia guztien ardura eta elkarlana izango zuten harremanak sortzen ahalegintzera.

“Nik uste dut beldurra izan dela edo, tira, hasiera hasieratik alde batera utzi nahi izan den errealitatea. Elkarrekin hazten lagun zezaketen eta siner-giak sor zitzaketen berdintasunezko harremanak eraikitzen saiatu ginen, ez irakasle-ikasle harremana, non nik irakasten dizudan zuk nola jokatu behar duzun (...) Biok zerbait berria eraikitzen lagunduko digun harremana eraikitzen saiatuko naiz, nork bere ekarpena egiten ahalbidetzen duen ha-rremana. Hori da ametsa”.

Elkarte guztiekin dauden harremanei eragiten ez badie ere, Udaletik ere proble-matika hori aipatu da, batzuetan elkarteetako kideek ardurak ez baitituzte beren gain hartzen, elkarteek izan behar dutenean, prozesuan zehar, erantzukizun horiek bereganatu behar dituztenak.

“Ez dakit... laguntzak batzuetan aldi berean indartu eta ahuldu egin dezake. Ge-hiegizko laguntza batek batzuetan elkarteko arduradunen arduragabekeria ekar dezake-eta kudeaketan”.

Horrela, Fundazioak sustatzen eta garatzen dituen laguntzetan beti dirudi men-dekotasun-harremanak sortzeko aukera dagoela, agerian ez badago ere eta beti gertatzen ez bada ere; hain zuzen, programak nahi ez duena. Aukera hori hainbat elkartek ere ikusten dute; hausnarketa egin eta elkarteak indartzeko eta autonomia aurkitzeko bidean arrisku moduan ikusten dute.

“Ellacuriaren indartze programetan arrisku bat dago, elkarteak lasaikerian erortzekoa (...) urrats bat gehiago ematen ausartzen garen ikusi behar dugu, amatxo Ellacuria-rengandik aldentzen garen, prozesuan aurrera egin elkarteek jakin dezaten hau ez dela betirako. Baina elkartearen eta zentroaren helburua izan dadila. Uste dut arriskua hori dela, oso eroso gaudela horrela. Baina garapena galtzen da. Hau betirako ez dela izango argi egon dadila”.

Garrantzitsua da azpimarratzea hausnarketa hori bai elkarteetatik, bai Fundaziotik, bai eta tokiko administrazioetik ere sortu dela. Are gehiago, harreman horiek bideratzeko neurri batzuk proposatu izan dira, elkarteak indartu/jabetzeko eta autonomia hartzeko prozesuak blokeatuko dituen gehiegizko mendekotasuna saihesteko. Aurrerago ikusiko ditugu, etorkizuneko erronkak eta helburuak aztertzean.

III. Taula. Parametroa: Ikasteko prozesuak		
Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Barneko parte-hartzea.	Elkarlana zer den ikastea eta ulertzea.	Barne desadostasunak. Boluntarioak falta.
Autogestio gaitasuna.	Bakoitzaren arduraz jabetzea.	Mendekotasun harremanak.
Hausnarketa gaitasuna.	Bere garrantzia balioestea.	Barruan beharraren berri ematea kosta egiten da.
Sarean eginiko lana.	Kultur Batuak eskarmentua.	

Ikasketa-prozesuez mintzatzean zehatz-mehatz nori buruz ari garen galdera sor daiteke, elkarteei buruz edo Ellacuria Fundazioari buruz. Bada, abiapuntutzat hartzen badugu sistematizatzen ari garen esperientzia neurri handi batean aktore desberdinek partekatzen duten esperientzia dela, eta kontuan hartzen badugu alde desberdinen artean sortzen diren prozesu eta harremanez ari garela, Fundazioari zein elkarteei egingo diegu erreferentzia.

Barneko parte-hartzea

Elkarteetako barneko parte-hartzea dela-eta, sentipen bera dago bai Fundazioaren aldetik bai elkarteetako kideen aldetik, esparru honetan aurkitzen dituzten zailtasunei

dagokienez, eta funtsezko bi puntutan laburbil ditzakegunak: barne desadostasunak eta boluntario eza. Horrek ez du ukatzen elkarte askok Fundazioarekin batera egin duen bidea aitortzea, elkarlanerako espazio bat eta konpromisoa sortzera eraman duen bidea.

Aurrez aipatu dugu barne-gatazkengatik eta pertsona batzuen gehiegizko lidergoagatik elkarreetan sortzen den problematika. Errealitate horretatik abiatuta, interesgarria da azpimarratzea elkarreet beraiek gatazka mota horiek kudeatzen laguntzeko modu edo bideak sortzea proposatzera, bai eta eskatzera ere iristen direla. Horrela, Fundazioak elkarreetkin batera gatazkak konpontzeko lan eta gara ditzakeen lanabesei buruz hitz egiten da. Era berean, Fundazioko teknikariek bete dezaketen moderatzaile rola aipatzen da, elkarreetako kideen arteko barne tirabirak saihesteko edo konpontzeko orduan.

“Lagun gaitzakeena... komunikaziorako lanabesak izanez gero... batik bat gatazkak konpondu ahal izateko, horrelako egoeraren bat sortzen bazaigu, hobeto egingo diogu aurre. Gizarte mailan surfeatzen jakitea bezala da”.

“Elkarreetak daude, baina beti zuek gertu edukita, gonbidatu gisa, moderatzaile paperean. Ondo etorriko litzaiguke”.

Barne parte-hartzearen esparruko funtsezko beste kontuetako bat elkarreet barnean borondatez parte hartzen duten pertsonena da, ekimenak garatzen dituzten pertsonena. Alde handia dago bertakoek eta imigranteek osatutako elkarreet artean; izan ere, aurreneko horietan liberatutako langileak daude, konpromiso bat eta elkarreetari eskaini diezaizoketen denbora bat dutenak; aldiz, bigarren kasuan hori lortzea zaila da. Errealitate hori, elkarreet azpimarratzen dutena, dudarik gabe imigranteen elkarreetzat galga handia da, eta, askotan, bertakoen elkarreet aurrean desberdintasun egoeran kokatzen ditu. Baina baliabideen esparruari erreferentzia egiten dion kontu horrez gain, elkarreet borondatezko lanaren mugei eta pertsona horiengan elkarreetaren alde lan egiteko konpromisoa eta gogoia piztuta mantentzeari heltzen diote.

“Borondatezko lanak mugak ditu (...) Kexa asko dago (...) Konpromiso bat hartzen duzue, ardura bat, baina gauza horiek egiteko gogoia izan behar duzue, zuen herrikideen alde, laguntza soziala helburu. Ez galdu ez gogorik ez gusturik. Hori galtzen ari bagara, berreskuratu beharra dugu...”.

Imigranteen parte-hartze handiagoa sustatuko duten ekimenak abian jartzeko beharra ere aipatzen da, batik bat gazteen parte-hartzea.

“Bitaminak eman behar dizkiogu. Pertsonak aldatu (...) neure kasaka promozioa egin nuen, hainbati programa bidali nien, amua botaz. Pertsona horietako inork ez zuen erantzun eta ez zen inor etorri (...) Komunikatzeko modu berrieekin, orain Internet, mugikorrak dituzue, egunero elkarrekin hitz egiten duen jendea dago-eta (...) orduan, jendeak ez dauka lehen zuen behar psikologiko hori...”

Interesgarria da pertsona horren hitzek nazioarteko migrazioen esparruko globalizazio-testuinguru berria aipatu izana, etorrerako gizarteetan imigranteen elkarten dinamiketan eragina izan dezakeena. Gaur egun imigranteek jatorriko familiarterekin eta komunitateekin aldi berean, bai denboran, bai espazioan, izan ditzaketen harremanek eragina izan dezakete etorrerako gizarteetan sortzen diren loturetan, askotan imigranteak elkarte bat sortzeko erabakia hartzera bultzatzen dituztenak. Iraganean imigranteek jatorriko lekuekin zituzten harremanak moztzen bazituzten eta etorrerako lekuetan beren herrikide edo aberkideekin topo egin eta horien berotasuna jasotzea bilatzen bazuten, badirudi orain, testuinguru global batetan, ia eguneroko komunikazioaren aukerak bilaketa hori askoz urriagoa izatea ekartzen duela.

Hala ere, testuinguru global hori zerbait txarra bailitzan hartu beharrean, testuinguru horrek elkarteei onurak (sozialak, politikoak eta kulturalak) jatorriko gizarteetara bihurtzeko aukera berriak irekitzen dizkiela azpimarratu behar da.

“Uste dut hitzaldi horiek oso ondo daudela, on egiten dute (...) baina gehienak hemengoak dira. Eta hitzaldi horiek behar dituztenak gu, imigranteak gara. Nik hitzaldi horiek hemen ez gelditzea nahiko nuke, jatorriko herrialdeetara iristea nahiko nuke”.

Autogestio gaitasuna

Autogestio gaitasunari eta imigranteen elkarten erantzukizunen ardura hartzeari dagokionez, guztiek esparru horretan aurrera egin dela uste dute. Elkarte batzuek autonomia berenganatu dute, eta, nolabait esateko, bakarrik ibiltzen hasi dira.

“Uste dut hazi egin garela, beharbada harremanen, proiektuen kalitatean, ingurunearekin ditugun harremanen inguruko lur-hartzearen alde teknikoan”.

“Hain zuzen ere, ikasketa hori garatzen ari diren elkarteekin egiten dugu topo, eta dagoeneko ez digute alderdi tekniko hori hainbeste eskatzen, galdera zehatzago edo partikularragoak egiten dituzte...”.

“Elkarte guztiak ez dira berdinak; babesa ematen zieten sistematik pixka bat aldentzea lortu dutenak, horiek bai eboluzioa izan dutela, ez dakit hainbeste proiektuaren kalitatean, teknikoki ulertuta, baina hori guri beharbada interesatzen zaigu”.

Berriro, eta autogestio eta autonomia lortzeko prozesu horiei dagokionez, badirudi Fundazioaren eta elkartearen artean eraikitzen den harremanak baldintzatzen duela elkarte horien ondorengo ibilbidea. Horrela, Fundazioaren eta elkartearen arteko harremanak mendekotasunezko ezaugarri gehiegi dituenean, elkarteek autonomia gehiago eskuratzeko prozesuan eboluzioa txikiagoa izango da. Prozesu hori, beraz, hasiera-hasieratik sortzen den harremanak baldintzatzen du, eta, beraz, Fundazioko teknikariek elkarteekin aurreneko aldiz elkartzen direnetik kontuan izaten dute.

Baina elkartearen garapen-prozesuan bertan ere neurri jakin batzuk har daitezke, hain zuzen ere zera saihestearren: gehiegizko menpekotasunaren ondorioz bertan behera geratzea autonomiarantz eta indartze/jabetzerantz eraman nahi duen prozesua. Horrela, elkarte batzuetatik elkarteek bete beharreko epe-sistema bat ezartzeko proposamena sortu zen.

“Orduan elkarte bakoitzarentzako epe egokiak ezartzeko moduak pentsatu beharko dira (...) elkarteak haztea eragozten duten geldialdiak saihesteko, eta ez dadin erosoegi egon. Erronka berriak dakartzaten elkarte berriak sar daitezen, eperen bat ipini beharra dago”.

Hala ere, epe-sistema bat neurri zurrunegia izango litzateke, Fundazioaren programak beregain dituen balioen aurka egingo zuketena, bai Udalak bai elkarteek azpimarratu dituzten balioak: elkarte bakoitzaren egoera berezietara moldatzeko ahalmena eta bere malgutasuna, hots, aurreko paragrafoetan “neurrira lan egitea” deitu dena.

*“Ez dakit epe-kontu bat planteatzea oso zurruna izatea den, dauden hartzailleak kontuan hartuta; beharbada bai dela zurrunegia, azkenean ez beharrak, ez lana-
besak ez baitira berberak (...) gainera, programaren balio batzuk galtzen ariko
zinateke: malgutasuna eta moldaketa...”*

Fundazioak ere ikusi du batzuetan elkarteek hazkunde-erritmoa moteltzen duten gehiegizko mendekotasun-loturak sortzen dituen errealitate hori, eta epe zurrunak jarri baino elkarteekin burutzen diren laguntzan eta harremanen intentsitatean aldatetarik proposatzen ditu.

“Elkarteekin saihesten ari garena beti intentsitate berarekin lan egitea da; horrela, aurrera doazen heinean ez zaizkie aurreneko urteko erraztasunak ematen. Elkarte horrek ikasketa prozesu bat izan duela ziurtzat jotzen da, bere errealitateara aplikatzen joan behar duena”.

Dudarik gabe, gai hori esanguratsua da esperientzian parte hartzen duten protagonista guztientzat, elkarteek hazkunde eta heldutasun prozesuan eragin zuzena duen neurrian.



Hausnarketa gaitasuna

Azpimarratu beharrekoa da elkarteen garapenerako prozesu mota horien beharrari eta duten garrantziari buruz guztiek sentipen bera dutela, elkarteen hausnarketa-gaitasuna elkarte bakoitza egiten ari den bideari buruzko elkarriketa-gune baten gauzatzeaz gain.

“Gobernatzeko erraza ez den testuinguru batean gaude. Hori da kontua. Go-goeta egin behar da... hori egiteko modukoa den eta guztiek onartzen duten proposamen baten bihurtzeko bidea aurkitu behar dugu”.

Horrela, hausnarketaren beharra bai elkarteen bai Fundazioaren aldetik sentitzen eta onartzen da, eta Fundazioak, urte askotako lanaren ondoren aurkeztzen ari garen sistematizazio prozesu honi ekitea erabaki du, gauzatzen joan diren praktiketarik eta esperientzietatik jasotzeko, balioztatzeko eta ikasteko.

Sarean eginiko lana

Sarean eginiko lanaz mintzo garenean, Fundazioak eta elkarteek elkarteen espazio komun bat gorpuzteko elkarrekin egindako lanaz ari gara, azkenik Kultur Batuak deitu zena. Kultur Batuak en ibilbidea eta eskarmentua, motza den arren, bai Fundazioaren bai Udalaren aldetik ondo baloratzen da, elkarteen arteko sareko lana sortzen duen heinean, nondik ezagutza eta praktika komunak ateratzen diren.

“Aurten aurreneko aldiz elkarteen esperientzien trukerako tailer bat osatzea lortu da, eta proiektuarekiko lotura oso handia izan da, kontuan hartzen badugu dena nahi izaten dela, baina kontu hauetarako denbora urria izaten dela. Lorpen handia da besteen esperientziak niretzat baliagarriak izan daitezkeela ikustea, eta nik ere badutela zer eskaini. Hori Kultur Batuak barruan izan da (...) proiektuaren garapenean tartean dabilta, tailerrak moderatzen dituzte (...) lortzen diren esperientzien ebaluazioak eta besteak gai zehatzak nola konpontzen dituen ikusteak ikasketa gisa balio du”.

“Gainera, Kultur Batuaketik hasita bilakaera bat izan duten proiektuak egon dira, eta indartze esperientzia oso polita dela iruditzen zait”.

Gune hori sortzeko prozesuan, elkarteak izan dira arazo gehien izan dituztenak beren kideei elkarten arteko sareko lanak sor ditzakeen ideien, beharren eta aukeren berri emateko. Elkarteek beren finkatze eta autonomia lortze prozesuetan azaltzen dituzten barne ahuldadeak berak dira *a priori* beste elkarteekin batera egin beharreko lanaren kontzientzia urrunetik ikusarazten dutenak. Hala ere, eta guztientzakoa den leku horren sorrera eta kudeaketa hasi berria den prozesua dela garbi izan arren, elkarteek oso ideia ona dela deritzote.

“Prozesuan gaudelakoan. Elkarlanean hasi berriak. Orain egiten ari diren tailerrak garrantzitsuak dira. Jendeak aintzat hartzen du esperientzien trukerako tailerra. Urrats bat da elkarteak elkarrekin harremanetan egotea. Baina tira. Oraindik kostatu egiten zaigu”.

IV.Taula. Parametroa: Etorkizuneko erronkak eta helburuak

Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Sendotzea.	Hartutako bidea.	Gaur egungo egoera sozioekonomikoa.
Independentzia.	Aktore guztiek partekatzen duten hausnarketa.	Mendekotasuna.

Dudarik gabe, elkarte guztiek etorkizunera begira duten xedea finkatzea eta barne indarra eta egonkortasuna hartzea da, bai barneko lana, bai beste elkarteekiko lotura prozesuak eta elkarlana garatzea ahalbidetuko diena. Testuinguru horretan problematikotzat jotzen den alderdietako bat gure herrialdea jasaten ari den krisialdi sozioekonomikoa da, eta, oro har, imigranteei gehiago eragiten dien arazoa da. Ezegonkortasunak berak eta elkarteak osatzen dituzten pertsona askoren zailantiaz beteriko etorkizunak elkarte horien lana motel edo ahultasun gehiagorekin egitea dakar.

“Gure elkarte nola ikusten dudan etorkizunean? Zorte apur batekin, finkatuz. Baina pare bat urte beharko dituela uste dut, krisiak gogor jotzen du-eta. Hala eta guztiz ere, sendotzea espero dut. Garatzen hasteko aldi hori hainbat gauza ikasi ondoren egiteko moduan izango garela... ez dut uste berehala izango denik”.

Egoera hori horrela izanik eta elkarte batzuek barne mailan aurkez dezaketen ahultasun maila handiagoa, edo ez, izan arren, merezi du aipatzea elkarte horietako askok egindako hausnarketa, bideari, lehenago edo geroago, batera ekiteko beharraz. Gogoeta garrantzitsu horrek, berez, barne hausnarketa eta finkatze maila altua erakusten du, eta oraindik praktikara guztiz eramaten ez bada ere, bide hori jorratzeko ezinbestean eman beharreko lehenbiziko urratsa da. Horrela, elkarte batzuek etorkizunean laguntza bat sortzeko beharra azaldu dute, elkarteak bidea bakarrik egiten has daitezen.

“Aldentzeko orduan nola lagundu planteatu, terapia egiten duzuenean bezala. Horrela, aldentzeari lagunduko dion prozesu baten pentsatu. Zentrotik irtetea erronka oso handia da. Gure elkarteak hazteko aukera izan dezan edo finka dadin hemen-dik irten beharra dauka, hori da prozesu naturala”.

Fundazioak ere planteamendu horrekin bat egiten du; izan ere, elkarte bakoitzaren baldintza eta ezaugarrietara moldatzeko espazio malgu baten aurrean, iritzi bera du.

“Uste dut lan egiten dugun espazioetan aldaketara ohitzen joan beharko dugula. Udalarekin eta elkarteekin batera joan beharko dugu, komatxo artean, desagertu arte. Gu bertan egotea beharrezkoa ez izatea da ideia. Elkarriketa erabiliz. Noiz eta nola ezkututzen joan behar dugun ikusi behar dugu, gauzatu nahi ditugun autonomia eta indartze horiek benetan gauza daitezen. Birkokatze horrek eten-gabea izan behar du”.

Badirudi, hortaz, etorkizuneko erronka nagusia, beti ere elkarriketa-espazio konstruktibo batean, hitzarmenak lortzen joatea eta elkarteak bakarrik ibiltzen hasteko urratsak ematea izango dela. Prozesu horretan ez da soilik Fundazioarekin batera elkarte bakoitza egiten ari den barne lana azpimarratu behar, bai eta elkarte guztien sareko lanaren garrantzia ere, ahots bateratu eta komuna finkatzeko, aktore sozial berri eta gure gizarteko hiritar berri gisa parte har dezaten.



Zeintzuk dira esperientzia honetako talde protagonistak?

Jarraian urte guzti hauetan zehar Ellacuria Fundazioarekin Bilbo eta inguruan indartze proiektuan lan egiten ari diren elkarten izenak aurkeztu ditugu. Proiektu horren ezaugarriak dinamismoa, ahalegina eta pertsona guzti hauen elkarlana dira, urte guzti hauetan zehar proiektuari edukia eman diotenak, beren ibilbidetik eta esperientzietatik abiatuta. Lan honetan jaso ditugun ahotsak, inondik inora, elkarte guztietakoak ez diren arren, eta, beraz, ezin garen mintzatu ordezkaritza batez, zentzu numerikoan, urte guzti hauetan zehar egindako lanak ordezkaritza batez mintzatzea ahalbidetzen digu, zentzu kritikoan. Hots, beharrak, bizipenak eta gaitasunak daude, azaltzen, formulatzen doazenak, eta, honela, indartze proiektua bera sortzen doazenak.

- Garapenaren, Kulturaren eta Adiskidetasunaren Laguntzarako Euskal-angolar Elkartea (AVACO)
- Santu guztien eliza ortodoxo errumaniarra Bizkaian
- Kongoren batasunerako eta garapenerako federazioa
- “Kongo Dia Ntotila” elkarte kulturala
- Guine Bizkaia
- Pablo Neruda txiletar kultura-gune elkartea
- “Subulu Salam” senegaldarren taldea
- Afrikarren Arteko Solidaritaterako Elkartea Euskal Herrian (ASEA-VASCA)

- Solidaritaterako Kongoko elkarte Euskadin (Limemia)
- Bizkaiko bolikostarren batasuna
- Argentinarren Elkarte Euskadin (ARVAS)
- Uruguai Euskadi etxea
- Igboen komunitateen elkarte Euskadin
- Garapen integralerako elkarte: Kulturak Batzen ASDIUC
- Onda Euskadi
- Eusksah / Sahararren diaspora Bizkaian
- Mauritaniar-euskaldunen anaitasuna elkarte
- Ekuador Etxea elkarte
- Munduko Herria nazioarteko solidaritate elkarte Kamerun
- Kamerungo elkarte Bizkaian (ACABIZ)
- “ASSAFAR” kultura anitzen elkarte
- Mundu Berriak elkarte
- Ongizaterako elkarte (Osasun gaietan interesa duten pertsona latinoak)
- Ndiambour Bizkaian garapenerako elkarte
(Senegaleko inguruaren garapenerako elkarte)
- BIDAYA musulman emakume gazteen elkarte
- Emakumeen eta gizonen integratziorako Nigeriako EDO Club elkarte
- Garapenerako laguntzarako Bokediambay elkarte
- Bizkaiko kongotarren elkarte mutuala
- Estancia kirol eta kultura elkarte eta antzekoak Bizkaia maitatuz
- Kultura aniztasunerako eta garapenerako laguntzarako “SUDU” elkarte
- Vostok elkarte kulturala
- Jesus Salbatzailea elkarte kristaua
- Espainian bizi den afrikar komunitatea CARE
- TERRANGA Bizkaiko senegaldarren batasunaren elkarte
- Boliviarrak biztanleen kirol elkarte
- TERRANGA Bizkaiko senegaldarren batasunaren elkarte
- Terranga Diama Jou Rahma

- JAPOO
- Yapale Beer
- Dahiratoul elkarte kulturala
- Moutahabbina Fi lahi
- Sunu Makaan
- FEDAIB
- M'Lomp
- Osatu
- Integrazio elkarte
- Bizkaiko kongotarren elkarte mutuala
- Pakistandar imigranteen elkarte PAK - Bizkaia
- Islamaren Adiskideak
- Mugarik gabeko ahotsak / ahotsak batzen
- Diofiarretik emigratutakoen elkarte Bilbon
- Flamme D'Afric
- Solidaritate ekimenerako eskuen elkarte
- ACULCO
- Kolonia eta Iberoamerikako garapenerako laguntzarako elkarte soziokulturala
- Integrazio soziokulturalerako afro-arabiar euskaldun Schams elkarte
- Sestaoko emakume-taldea
- Ghana Northern brothers elkarte
- Nopintcha
- Ghanako kultura-elkarte
- Unión des Pirois de Euskadi Sanaxor elkarte
- Euskal Herriko zentro soziokultural islamiarra
- Ongizaterako elkarte
- Hazkundean elkarte
- Bizkaiko Oudiodial elkarte senegaldar komunitateari laguntzeko
- Euskalmon
- Minusbaliotasun fisiko eta psikikoen aldeko elkarte - Alazan Taldea

- Dominikar batuen elkarteak Euskadin
- Bolivia Gurea elkarteak
- Imdoukal Euskadi elkarteak
- Euskadiko kamerundarren solidaritate, garapen eta aurrerapenaren aldeko elkarteak
- Nahuatl Elkarteak
- Walata elkarteak
- AESCO
- El Bahja gazteentzako kirol eta kultura elkarteak
- Getxoko emakume imigranteen elkarteak
- Herriaren berradiskidetzaren aldeko angolarren batzarra (AARNA)
- Sierra Maestra elkarteak
- Bakearen eta garapenaren aldeko munduko hiritarren elkarteak (ACMPD - Maendeleo)
- Bolikostarren "La esperanza hace vivir" kultura-elkarteak
- Haali Pular elkarteak
- HOP imigranteen aldeko elkarteak:
- Ahots guztiak elkarteak
- Bizkaiko maliarren Benkadi elkarteak
- Afrik'hope elkarteak

2.2. Sentiberatze- eta indartze-proiektua

Getxon

Proiektu hau gero eta anitzagoa eta dinamikoagoa den gizarte baten testuinguruan sortu da. Hain zuzen, egungo migrazio-mugimenduek gure gizarteetan aldaketa garrantzitsu eta korapilatsuak sortzen dituztela aipatu dugu jada testu honetan. Lehen ere askotariko gizarteak osatzen bagenituen ere, hainbat jatorritako lagunen etorrerak aniztasun soziokultural hori areagotu egin du eta eremu, dinamika eta behar berriak sortu ditu. Gizarte berri baten partaide eta herritar garen heinean guztion artean egin behar diegu aurre behar hauei.

Testuinguru honetan eta erronka berrien aurrean, Ignazio Ellacuria Gizarte Fundazioak kultura arteko gizarte berri honen eraketan lagun dezakeen lana du buruan.

Guztiok parte hartzeko eta protagonista izateko aukera emango liguke kultura arteko gizarte berri honek. Europar Batasunak 2008a *Kulturen Arteko Elkarriketaren Europar Urtea* izendatu zuen eta, testuinguru honetan, Getxoko Udalarekin elkarlanean hasteko une egokia zela erabaki zuen Fundazioak. Horrela, honako ardatz estrategikoak hartu ziren kontuan:

- Diru laguntza deialdien bidez elkarlan marko bat sortu, atzerriko etorkin-elkarteei berariazko aholku-zerbitzua eskaintzeko.
- Etorkinen Nazioarteko Egunaren Sentiberatze Jardunaldiak prestatzea eskatzea. Jardunaldi hauen protagonista udalerriko erakundeak beraiek izan daitezela bilatuko da.

Lehen prozesu honek bi gauza utzi zituen agerian: Getxoko elkarteak sortzeko duen kapital garrantzitsua eta kapital honek sentiberatze-espazioak artikulatzeko duen gaitasun eragilea. Era berean, oso baliagarria izan daitekeen eremu komun bati jarraikortasuna emateko elkarte-ehunaren interesa egiaztatzea ere ahalbidetu zuen lehen prozesu honek: batetik elkar ezagutzeko, elkar aintzat hartzeko, esperientziak eta jakintzak trukatzeko eta bestetik, sinergiak sortu eta etorkizunean sarean lan egin ahal izateko, elkarren arteko proiektuak garatzeko, etab.

Dena dela, jardunaldien ekimenak era parte-hartzailean lantzea eta garatzea helburu zuten udalerriko elkarte-ehunarekin eginiko hainbat bilera dinamizatzeko batetik, eta elkarren artean gerora eginiko jardunaldien eta prozesuaren ebaluazioak bestetik, etorkizuneko lanak honako norabidea hartu behar zuela egiaztatu zen:

- Sentiberatze-jarduera berriak lantzerakoan Getxoko udalerriko migrazio-gerdakariaren errealitatearekin lotura duen elkarte-ehuna laguntzea.
- Elkartzeak indartzeko eta jendea elkarte hauetara erakartzeko prozesu bat eraikitzea errealitate horrekin zerikusia duten taldeak gizartean ageriago egon daitezela eta parte-hartze handiagoa izan dezaten.

Azken esperientzia hau oinarri harturik 2009rako *Getxoko udalerrirako Kultura arteko Elkarbizitzan Sentiberatze Egitasmoa* Ellacuria Fundazioak artikulatzeko proposatu zuen Udalbatzak, eta behin eta berriz eskatu zuen egitarau hau lantzerakoan elkartze ehuna eragile aktiboa izatea.

Migratio-errealitatearekin zerikusia duten elkarteak Egitasmo honetan inplikatzeko bi helburu ditu: batetik, parte-hartze praktika egokien hastapeneko prozesuari jarraipena ematea eta sare-lana egiten ahalbidetzea; eta bestetik, etorkizunean erakundeen artean eta/edo Getxoko Udalarekin elkarlanean ematurako ekimen berrien sorleku izango den eremu propio baten eraketa ahalbide dezaketela sinergiak sortzea.

Behin Egitasmoa gauzatu eta gero Ellacuria Fundazioak egitasmo hori landu zuen eta honako alderdiak azpimarratu ziren:

- *Inmigrantes de Getxo - Getxoko Etorkinak* izeneko Elkartearen Plataforma sortzea.
- Udalaren proposamena dela eta, Plataforma horren eta udal-erakundearen artean eginiko jardueren garapenean elkarrekiko erlazioa. Elkarrekiko hartu-eman honek taldea gizartean ageriago egoten erraztu du eta udalaren eta Getxoko gizartearen kultura-proposamenak eta parte-hartzea bultzatzen dituzten proposamenak aberastu ditu.
- Plataformako erakunde berriak edo garapen txikiagoa izan duten erakundeak indartzeko prozesua. Testuinguru honetan eta udal-dinamika orokorrean, erakunde hauek aktibo egon daitezen eta proposamenak egin ditzaten ahalbidetu du prozesu honek.

Prozesuak kontuan hartzen dituen -eta beraz, estatikoak ez diren eta konplexutasun osoan garatu gabeko helburuak dituen- testuinguru batetik at eginiko lanak zentzurik ez daukala ere azpimarratu zen. Hau dela eta, plataformaren eta berau osatzen duten taldeen autonomia sendotzen eta areagotzen ahalbide zezakeen laguntza garatzea garrantzizkotzat hartu zen, nahiz eta eginiko lanaren balioespena positiboa izan eta planteatutako helburuak erdietsi.

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, 2010etik aurrera eginiko lanak honako norabidea izan zuen:

- *Inmigrantes de Getxo - Getxoko Etorkinak* Plataforma laguntzea, espazio eta denbora gehiago utziz plataforma bera osatzen duten elkarteek zuzen deza-ten barne-kudeaketa. Fundazioaren aholkularitza lana zehatzagoa egitea, unean unekoa, eta bilera jakinetan bertan egotea eskatzen zuen horrek. Jarrera honek honako helburuak zituen:
 - Plataformak Udalarekin zuen elkarriketan jarraitzeko harremanari eustea eta programatutako udal ekintza kopuru jakin batean parte hartzea.
 - 2010. urteari begira plataformak ekintza-agenda propioa garatzea.
 - Plataforma Bizkaiko elkarte-ehunean ikusgai egotea.
- Plataformarekin zerikusia duten taldeak indartzea eta gaitzea talde hauek gizartean agerian egon daitezen eta parte-hartze handiagoa izan dezaten. Indartze- eta gaitze- prozesu hauek plataformaren agendarekin eta talde bakoitzaren elkarte-beharrekin lotuta leudeke.

Honekin guztiarekin, immigrazio-errealitatearekin zerikusia duten elkarteen gaitasuna parte-hartzearen bitartez garatzea eta gizartean agerian egotea bermatu nahi du Ellacuria Fundazioak. Era berean, proposamenen formulazioan eta garapean elkarteak eragile aktibo nagusiak izan daitezten bilatzen da.

Fundazioak 2008 eta 2010 urteen artean bideratutako laguntza eta indartze proiektua aurkeztu dugu honaino. Prozesu honen protagonistak Fundazioa, Getxoko Udaletxea eta etorkin-elkarteak izan dira. Ezagutu dezagun orain esperientzia aberats hau sistematizatzeko jarraitu dugun metodologia.



Hastapenak:

Zeintzuk izan ziren hurrengo pausuak?

Sistematizazioan zein agentek hartuko zuten parte eta sistematizazioak zenbat denbora iraungo zuen erabaki eta gero, metodologia diseinatzeari ekin genion. Erabilitako teknikak izaera kualitatiboa zuten. Zehazki, metodologia diseinatzeari zegokion bibliografia berrikusi eta gero, etorkin-taldeetako partaideekin esperientzia-tailer bat egin zen eta Getxoko Udaleko Immigrazio Teknikari baten eta Fundazioko Teknikari baten arteko bi elkarriketa sakon egin ziren.

Informazio esanguratsua bildu ahal izateko, aurretik gidoi bat landu zen, bai elkarriketarako baita tailerrarako ere. Gai hauei buruzko argibideak jaso nahi ziren:

- Indartze-proiektuaren historia eta garapena.
- Esperientziaren balioespen orokorra.
- Erronkak eta zailtasunak (baliabideak, komunikazioa, aldiak, bestelakoak, etab.).
- Azpimarra daitezkeen jarduera eta esperientzia partikularrak, bai hauen alderdi positiboak direla eta, baita hobetu beharreko alderdiak direla eta ere.
- Esperientziaren hiru protagonisten arteko harremana eta komunikazioa; balioespena, zailtasunak, hobetu beharreko alderdiak, etab.
- Elkarrekin eta Udalak nola hautematen duten Fundazioa.
- Bidea egindakoan ikasitakoa.

Azterketa

Tailerrak eta elkarriketak bukatu zirenean bildutako material guztia aztertzeari ekin genion. Arestian esan dugun lez, prozesuaren garai honek sortzen zizkigun erronka gehien, gertakarien azalpenetatik abiatuta esperientzia balioesteko beharrezkoa den begirada kritikoa garatu behar baitzen.

Esperientziaren aplikazio eremua Bilbo izanenez, bildutako informazioa sakonki berraztertu eta gero lau parametro orokor definitu ditugu. Gero, Parametro orokorren hauen pean esperientziaren alderdi esanguratsuenak zehaztea ahalbide dezaketen adierazle andana egituratu dugu. Hau egindakoan, prozesuan parte hartu duten pertsonak esandakotik sistematizazio prozesuaren azterketari ekin diogu. Azterketa honen emaitza prozesuaren aktoreek beraiek bizitako esperientzietara hurbilduko gaituen testu batean gauzatu da.

V.Taula: Parametroa: Laguntza- eta indartze-prozesuaren garapena eta kudeaketa

Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Espazio fisikoak.	Oinarrizko eta lehen mailako beharra beteta.	Lokala gehiago erabiltzea, bai talde modura bai plataforma modura.
Barne-antolaketa-arako gaitasuna.	Borondate ona eta prestasuna. Konpromisoa. Hazkundea.	Konpromiso handiagoa. Denbora mugak eta pertsonen lege eta lan egoerak.
Fundazioaren lanabesak.	Informazioa. Prestakuntza. Laguntza. Aholkularitza. Bultzada eta akuilu izatea. Lotura/Zubi-lana.	

Espazio Fisikoak

Proiektuan zehar, 2009an, elkar-teetako batzuk biltzeko eta garatzeko espazio baten beharra zutela agerian geratu zen.

Behar komun hau egiaztatu eta gero, eta denon artean ase zitekeela jabetuta, elkar-te guztien artean proiektu bat landu zen. Bertan, immigrazioarekin zerikusia zuten elkarteen beharrei erantzun zuten espazio bat eskatzen zitzaion udalbatzari.

Urte berean jada plataforma lez eratuta zeuden elkarteen eskaerari erantzun po-sitiboa eman zion udalbatzak: elkarrekin kudeatutako espazio bat uztea, elkarte bakoitzaren nahiz plataforma beraren bilera eta jarduerentzako.

Barne-antolaketa-arako Gaitasuna

Erakundeak indartzen ari direla jabetzen dira: kudeaketa-gaitasuna, elkartze-dina-mika indartsua, egitura argia, lidergo partekatua eta etorkizunerako aukera argiak eta komunak bereganatzen ari dira. Bestalde, hazkuntza hau norbanakoarengan emateaz gain taldean ere eman dela azpimarratu behar da. Izan ere, kolektiboak harremanak sortu izanak proiektu komun bat abiaraztea ahalbidetu baitu.

2009ko ekainean, hainbat egitarau eta ekintzatan parte hartu eta gero, immigrazioarekin zerikusia duten elkarteak plataforma lez eratzea erabaki zuten. Esperientzia hauen bizipena funtsezko aurrerapen gisa jasotzen da immigrazioarekin zerikusia duten elkartekideen hitzetan, gehienbat egunerokotasunean itzaletan geratzen den kolektiboa gizartean agerian egoteko gaitasun ahalmena dela eta.

“Orain hemen gauden kolektibo bat gara. Udalak badaki nortzuk garen, eta badaki bagarela, (...) etorkinen kolektiboaren inguruan asmo politikoa pizten ari gara. Eta hori lorpen handia da. Herrialde batera etortzea, nor zaren ez dakien leku batera etortzea eta orain entzunaraztea eta entzun zaitzaten lortzea, ba oso lorpen handia da. Erantzukizun berria geureganatzen ari gara. Plataformaren lorpena da eta lanean zeuek egon zarete, protagonistak zarete”.

“Beno, bukatzeko, uste dut esana dagoela, oso positiboa da. (...) Orain ditugun eskumenak izan ez bagenitu... izandako akatsak akats, badago honetaz ohartu eta erreferentetzat hartu gaituen udalerrik...”.

Dena dela, eta lorpenak lorpen, prozesuan bertan prozesuaren beraren garapena oztokatzen duten hainbat faktore daude. Faktore hauen artean elkarteko pertsona askok etorkin diren heinean partekatzen duten egoerari loturikoak ditugu, hara nola: lanari, familiari, lege-egoerari eta abarrari loturiko egonkortasunik eza.

“(...) Elkarteen etorkin-kolektiboaren ahuldadeetariko bat lanaren inguruko egonkortasun eza da, orokorrean etorkin-kolektiboko partaide bakoitzaren atzean bizirauteko beharrezkoa duten dirua bidaltzearen zain dagoen familia baitago. Prestakuntza ikastaroak ere eskatzen ditugu, hau baita prestakuntza arloko ahuldadeetako bat. Baina lanorduekin jotzen du elkar”.

“Gainera pertsona hauekin lanari lotutako lehentasunak ditugu, gastuak... Nik zera diot beti: “Jateko ohitura txarra dugu, baita etxeagatik ordaintzeko ohitura txarra ere”. Hauek dira neurri batean agintzen eta arautzen gaituzten parametroetako batzuk, denbora eta gainontzekoak beste zerbaiti eskaini baino lehen”.

Fundazioaren Lanabesak

Aurreko orrialdeetan aipatu dugun modura, Getxoko Udalaren eta Ellacuria Fundazioaren lankidetzaz-esparruan sentiberatzeko eta indartzeko proiektuaren hasierako helburua elkarte-ehuna laguntzea da, etorkinen errealitatearekin zerikusia duten kolektiboak gizartean ageriago egotea eta kolektibo hauek gizartean duten parte-hartzea sendotzeko eta sortzeko asmoz.

Hortaz, Udalbatzako immigrazio teknikariak kontuan hartutako beharrek proiektuko helburu hauek baldintzatzen dituztela aipatu behar da. Teknikariaren beraren hitzetan.

“... Elkarrekin genuen erakunde-harreman hori egonkortzea eta indartzea behar nuen. Eta elkarte edo kolektibo horiei lagungarriak gerta dakizkien tailer zehatzak bezalako egitasmo horiek interesgarritzat jo nituen, baina era berean egitura bera indartu beharra ikusten nuen. Hau da, indartze-prozesua ezin zen gauzatu tailer soil batean, urte osoan egin beharreko laguntza-lanean baizik”.

Sentiberatze ildotik Getxoko etorkin-elkarreei sentiberatze-kanpaina berriak egiten laguntzen zaie, beti ere kanpaina hauen eragile aktiboak eta protagonistak elkarrekin izan daitezten ahaleginduz. Teknikariak ondo baino hobeto adierazi duen bezala, jarduera hauek Udalerriko Udalak sustatutako sentiberatze-egitarauetan txertatu nahi dute.

“Orduan urte osoan zehar sentiberatze-ibilbide batzuk nituela ikusten nuen. Oso interesgarria iruditzen zitzaidan elkarrekin inplika zitezen, modu eraginkorrean parte hartuz, egitarauak proposatuz eta garatuz”.

Dena dela, lehen helburu hau aurrera eramateko erakunde jaioberriek edo ibilbide txikiagoko erakundeek beharrezkoa dute elkartzeak indartzeko ibilbidean modu eraginkorrean parte hartzea.

“...gure sentiberatze-ibilbide honetan sendotutako elkarte hauekin egin behar dugu lan.”

Beraz, elkartzeak indartzearen ildotik erakunde gazteenekin edo garapen txikiagoa duten erakundeekin egiten da lan aldi berean, azken hauek lankidetzaz-esparru honetan aktiboak izan daitezen eta proposamenak egin ditzaten. Honela azaltzen du Zentroaren teknikariak.

“... Indartze lana hainbat erakunderen alde egiteko eskaintzen den laguntza da. Hara nola: esperientzia urriagoa duten etorkin-elkarteei eskainitako laguntza edo ibilbide txikiagoa egin duten etorkin-elkarteei eskainitakoa, urte gehiagoko ibilbidea duten edo langile liberatu gehiago duten tokian tokiko erakundeen erritmora lana egiteko arazoak dituzten etorkin-erakundeei eskainitakoa, elkarte batek bete behar dituen administrazio baldintzen ezaguera eskasagoa duten etorkin-erakundeei eskainitakoa eta abarrei eskainitako laguntza. Izan ere laguntza hori bertako erakundeek, etorkin-erakundeek eta abarrek partekatzen duten espazioetan parte-hartze berdintasuna sustatzeko eskaintzen da”.

Indartze ildotik jarraituz, erakundearen eta Fundazioaren artean sortzen den elkartze konpromiso baten esparruan txertatzen den lankidetzaz-hitzarmena sinatzean hasten da bien arteko harremana. Elkartze-konpromiso honek erakundearen eta Fundazioaren garapena ahalbidetzen du. Dena den, hau guztia haratago doa, eta elkarren arteko hazkuntza du helburu, bai elkarteena baita Fundazioa berarena ere. Etorkin-erakundeek ere beharrezkotzat eta positibotzat hartzen dituzte bi lan-ildo hauek. Elkarteetako baten hitzetan.

“Informazio faltagatik zein gure buruzagien denbora faltagatik ezezagunak zaizkigun ezagutu beharreko hainbat gaitan Fundazioa beti laguntzen ari zaigula badakigu, Ikuspuntu honetatik Fundazioak erakundeei edo elkarteei eskaintzen digun laguntza oso garrantzizkoa dela uste dut”.

VI. Taula. Parametroa: Aktoreen arteko harremana		
Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Komunikazioa..	Administrazioari begira lortutako ezagutza. Erakundeenganako hurbiltzea..	Barne-komunikaziorako zailtasunak. Oso lidergo pertsonalizatua..
Elkarren arteko lanaren garapena eta kudeaketa..	Ikaskuntza. Ezagutza. Indartzea. Lotura eta konpromisoa. Errekonozimendua. Protagonismoa. Gizartean agerian egotea.	Mendekotasun-harremanak..

Komunikazioa

Adierazle honek prozesuan parte hartzen duten hiru aktoreen arteko komunikazioa aipatzen du: Udal-administrazioa, Ellacuria Fundazioa eta etorkinen elkarteak. Komunikazioari gagozkionean, elkarteen eta administrazioaren arteko harremana dela eta, zentroak eginiko bideratzaile - bitartekari lana agerian ipini dute elkarteek. Horrela adierazi du elkarteetako batek.

“Administrazioaren eta elkarteen arteko lotura Ellacuria Fundazioak egin du, eta hori, nire ustez Fundazioaren aholkularitza-lanaren alderdi positiboa da, elkarteek ez baitugu kudeaketa zer den ezagutzen, adibidez”.

“Zentroak emandako informazioari esker eta proiektu argiei esker gehiago hurbiltzen gara erakundeetara, jarduerak egin ahal izateko”.

Ellacuria Fundazioaren eta Getxoko Udalaren arteko komunikazio prozesuei dagokionez, teknikari biak harremanen begikotasuna eta bakoitzak prozesuan duen lekuaren errekonozimendua azpimarratzen dute. Dena dela, elkarre-ehunaren baitan ez da gauza bera gertatzen, barne komunikazioak kideen partaidetzari eta oso lidergo nabari batzuei loturiko arazoei egin behar baitie aurre. Horrela adierazten dute hainbat erakundek.

“Zera gustatuko litzaidake niri: noizbait agertu ohi garen biren edo hiruren artean baino lagun gehiagorekin egitea bilerak. Jende guztia prestatzea...”

“... Ellacuria Fundazioaren eta elkartearen arteko harremanaren berri elkarteo zuzendariak bakarrik dute”.

“Ellacuriak elkarte-ehunaren artean eta administrazio-ehunaren artean loturak egiten ditu, baina bazkide arruntarekin duen harreman hurbila urria da”.

Udal-administrazioak eta Zentroak ere aipatu dute arazo hau. Ellacuria Fundazioak indartze-ildoaren bidez entitateekin egiten du lan, barne-komunikazioa hobe dadin eta informazioa entitatea osatzen duten guztiengana hel dadin.

Aipaturiko beste zailtasunetako bat lidergo pertsonalizatuei loturik dago. Etor-kin-entitateek, eta ez hauek bakarrik, pertsona bakar baten esku uzten dituzte erantzukizunak, erabakiak eta abarrekoak. Normalean pertsona hauek elkartearen zuzendaritzan karguren bat dute. Hori dela eta, lidergoen partekatzea sustatzeko eta lantzeko beharrezkoa deritzote prestakuntza eskaintzea. Elkar-teetako baten hitzetan.

“Edo eta zeuek emandako ikastaroa oso oinarritzkoa izan da, edo eta lidergoan dugu gabezia handia. Liderrei hezibidea ematea falta da. Orduan, elkartearen iraunkortasunerako liderren prestakuntza. Prestakuntza jaso duen liderrik ez dagoelako, liderrei hezibidea eman ez zaielako, elkarteek ez dute irauten. Elkartearen indartze-prozesutan oso alderdi garrantzitsua da lidergoa”.

Era berean, entitateetan sartzen diren bazkide berriak eguneroko eginkizunetan elkarlanean ari dira, baina elkartearen zerizanaren, xedearen, helburuen eta abarren ezagutza orokorragorik eduki gabe.

“Elkartearen sorreraren ezagutza argirik ez dagoenean hainbat xede tartean sartzen dira eta elkartearen garapena eta taldearen barne-batasuna izugarri nahasten dute, berez bazkide guztien onarpena jaso ez dutelako, edo eta irabazteko asmorik gabekoaren auzia argi ez dagoelako edo...”

Elkarren arteko lanaren garapena eta kudeaketa

Prozesuan zerikusia zuten alderdi bakoitzak elkarlanaren garrantzia uler zezan aldarrikatu zen. Hau da, orain artekoa elkarren artean eginiko lana zela, elkarlan honetan denok ginela protagonista eta erantzule eta azkenik, elkarlan honek elkarren arteko jabekuntza, ikaskuntza eta hazkuntza bilatzen zituela ulertzea aldarrikatu zen hasieratik.

“(…) Jabekuntza lortzen eta denon artean hazten ahalbidetzen digun harremana, aurkitzen dugun gizarte-ehuna ezagutuz eta ehun horretan izan dezakegun eragina eta parte-hartzea areagotuz. Elkarleen arteko harremanak bilatzen ditugu sarri, benetan elkarle-ehuna egon dadila alegia: beste elkarleekin ditugun harremanak indartzen gaituela, errealitateak eta esperientziak partekarazten digula eta partekatze honek aldi berean hazten laguntzen gaituela ulertzea”.

Lehenago aipatu dugun modura, 2009ko ekainean, hainbat egitarau eta ekintzatan parte hartu eta gero, immigrazioarekin zerikusia duten elkarleak plataforma lez eratzea erabaki zuten. Sarean eginiko lan honetan izandako esperientziak elkarle-talde gisa aritzeak eskaini ditzakeen aukeren jakitun izaten lagundu diete plataforma osatzen duten entitateei. Batetik, proiektu komun bat abian jartzea ahalbidetu duen sinergia sorta sortu da eta bestetik, elkarle guztiek dituzten eta modu bateratuan konpon daitezkeen zailtasunez osatutako oztopo sorta atzeman da.

“Guk (...) orain dela bi edo hiru urte izan genuen jada lehen hartu-emana. Garai haietan elkarleen elkarle osatzeko asmoa zegoen. Gu horretaz interesatuta geunden, aspaldidanik funtzionatzeko era nahiko indibidualista genuen eta (...) Hau dela eta hainbat jardura izan ditugu, hazten joan gara eta plataforma bat abian jartzera zihola esan zigutenean, ba esperientziak esaten digu plataforma honen bitartez gu ere ikasten joan garela”.

Esperientzia hau auto baten funtzionatzeko erarekin erkatzen duen migrazio-teknika-riaren hitzek ezin hobeto irudikatzen dute ideia hau:

"... Pertsonen arteko elkartzeek edo hainbat taldetako pertsonen arteko topaketek pertsona hauek euren burua ideiak eta proiektuak aurrera eramateko legiti-matuagotzat senti zezaten laguntzen zutela ikusten nuen. Hori oso interesgarria iruditu zait. Bere baitan motorra bilakatu da. Gasolina berezkoa zuen".

Hau bezalako prozesuetan dena den, prozesuotan parte hartzen dutenen arteko mendekotasun-harremanak sortzearen arriskua edo beldurra dago. Harreman mota hauek ez dira gertatuko baldin eta elkarteen indartzea, jabekuntza eta autonomia bilatzen duen prozesuaren arrakastaren alde lan egiten bada.

"Nik uste dut beldurra izan dela edo, tira, hasiera hasieratik alde batera utzi nahi izan den errealitatea izan dela. Elkarrekin hazten lagun zezaketen eta sinergiak sor zitzaketen berdintasunezko harremanak eraikitzen saiatu ginen (...) Harremaneko bi aldeoi zerbait berria eraikitzen lagunduko digun harremana eraikitzen saiatuko naiz, nork bere ekarpena egiten ahalbidetzen duen harremana. Hori da ametsa."

Bilboko kasuan gertatzen zen modura, etorkin-elkarteen eta Fundazioaren arteko mendekotasun-harremanak elkarteen jabekuntza- eta autogestio-prozesuan oztopo nabarmenak dira. Horren haritik, zaindu beharreko alderdia da honakoa, elkarrekin hazten laguntzen duten prozesuak geldi ez daitezen.

"Guk bilatzen duguna egiazko ikaskuntza eta garapena dira. Nahi dena etengabeko makulua bada beraiek makulu hori beste eremutan bilatzen dutela konturatu gara, Hori horrela izanik ere, tira, zaindu eta saihestu beharreko zerbait izango da beti eta lan egiten ari garen entitate horiei azaltzen saiatzen garen zerbait dela uste dut".

VII. Taula. Parametroa: Ikaskuntza-prozesuak		
Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Barneko parte-hartzea.	Elkarlanaren ezagutza hobeagoa.	Absentismoa. Lidergo eta ikasketa pertsonalizatuak.
Autogestio-gaitasuna.	Sendotzea Autonomia handiagoa.	Mendekotasun-harremanak. Denborari lotutako mugak.
Hausnarketa-gaitasuna.	Balioespena, garrantzia, hausnarketa eta eragina.	
Sarean eginiko lana.	"Inmigrantes de Getxo - Getxoko Etorkinak" Plataforma. Sozial Hitz - Harresiak Apurtuz Gizartean agerian egotea.	Gizartean agerian egotea.

Barneko parte-hartzea

Etorkin-elkarateek hainbat zailtasun topatzen dituzte, hara nola bazkideen absentismoa, aurreko paragrafoetan aipatu ditugun lankidetzaren eza eta elkarrekin lider eskasia.

"Aurrera goazela iruditzen zait, baina batzuetan ni bakarrik joaten naizen bilerak dau-denean, besteak bileretara ez datozenean... batzuetan elkartean ez dago elkarlanik".

Dena dela, prestakuntza eskaintzen edo lan-batzordeak sortzen dituzten ekintzen bitartez elkarlana, konpromisoak eta erantzukizunak partekatutako zerbait direla ohartzen hasi gara.

"Kudeaketa honekin ordu onean heldu gara. Gauza positiboetako bat kudeaketa-aren iraunkortasuna da, helduz doala eta uztera zoazenean bere gain beste norbaitek hartu behar duela ... eta ikasi egin behar duela (...)".

Etorkin-elkarteen, Ellacuria Fundazioaren eta Getxoko udalaren arteko harremanarekin gauza bera gertatzen da. Guztiak partaide aktiboak eta erantzuleak dira prozesuan, eta honek elkarlanaren ezagutza handiagoa dakar. Horrela adierazten du Fundazioko teknikari batek.

“Uste baitut ikaskuntza asko dela. (...) Alde batetik elkarren arteko jabekuntza beraren ulermena. Argi genuen ezin zitekeela bata irakaslea eta bestea ikaslea bilakatzen dituen bestelakotasun-harremana ezarri, bata laguntzailea eta bestea lagunduna bilakatzen dituen harremana. Baina hori nola egiten den ekinaren poderioz ikasten da, eta hori ikasi dugun eta ikasten ari garen zerbait dela uste dut, egin gabeko zerbait baita. Eta egiten jarraituko dugun zerbait da, errealitatea ere aldatuz ari baita (...) Eraikitzen jarraitzen duen ezagutza oso argia da”.

Autogestio-gaitasuna

Plataforman bertan eta berau osatzen duten zenbait elkartetan autogestio-gaitasunaren garapena eta nork bere gain erantzukizunak hartzearen garapena atzematen da. Fundazioak, hain zuzen, zera adierazi du.

“Hemen elkarte zehatz batzuen garapena azpimarratuko nuke. Elkarte hauek lotura hori ulertu dutela ikusten dut, baita lortu duten autonomia maila ere. Ikaragarritzko autonomiarekin dihardutela ikusteak, izandako harremanak ezartzeko gaitasuna ikusteak, orain harreman horietan funtzionatzen dutela ikusteak...”.

Lortutako autonomia-maila administrazio publikoaren hainbat instantziarekin elkarriketan jarduteko gaitasunean adierazten da.

“... Uste dut orokorrean elkarte horiek elkarren artean ezarri duten harreman-gaitasuna, udalarekin izandako elkarriketa-gaitasuna, teknikariarekin izandakoaz gain beste esparutan izandakoa ere (...) Maila horretan izandako garapena ikaragarria izan da”.

Dena dela, entitate guztiak ez dira garatzen erritmo eta modu berean. Gure nahia lan egiten dugun entitate horien erritmotara egokitzea oso garrantzizkoa da, elkarren arteko lan honetan prozesuak emaitzak bezain garrantzizkoak dira eta. Horrela adierazten du Fundazioko teknikari batek.

“Argi dago lehen aipatutako erritmo eta prozesuen kontua dela ikasitako beste gaietako bat: ez da gure prozesua, ez dira gure erritmoak. Beraz, ikasketa horiek elkarren artean eta batera egin beharreko zerbait dira. (...) zuk urteko egitasmoa eta urteko adierazleak edukitzea gauza bat da, eta beste bat, tira, bidean hori guztia prozesuen arabera berregin behar dela”.

Era berean, lehentxeago aipatu dugun bezala, prozesuko partaideen artean mendekotasun-harreman gehiegi ez sortzeak garrantzi erabakigarria izango du prozesuan bertan.

Hausnarketa-gaitasuna

Entitateen eta plataformaren hasierako osatze eta sendotze garaiak pasa eta gero, entitate hauetako askotan eginiko eta egin beharreko ibilbideei buruzko hausnarketa-espazioa sortzearen kezka eta gogoia pizten da.

“Halako zalantza eta galderekin, norantz jarraitu hazten, zein ote gure entitatearen xedea? Berrikusketa horri aurre egin behar diogu, baina horrek ere ba ditu bere alde onak: hasierako zailtasunak gaingitu ditu, eta zera planteatzen dugu...”.

Udalaren ustez elkarteetako batzuk euren buruari buruz hausnartzeko gaitasuna garatuz doaz. Garrantzizkoa da gaitasun hori azpimarratzea.

“... Nahiz eta ahuldade nabariak egon, indartze-proiektuari esker elkartearen baitan espirtu kritikoa pizten ari da”.

Sarean eginiko lana

Sarean eginiko lanari buruz hitz egiten dugunean lan horren bi ezaugarriari buruz ari gara. Alde batetik prozesuan zerikusia duten aktoreen lana adierazi nahi dugu: etorkin-elkarteek eginiko lana, udal-administrazioaren lana eta Ellacuria Fundazioarena. Lan hau ontzat hartzen da, nahiz eta elkarteetako askoren denbora faltak dakartzan arazoak ere aipatzen diren.

“Bestalde, zera nuen gogoan... elkarren artean eginiko lana, hau da, sarean eginikoa. Hau ere errealitate korapilatsua da, ez esanahia ulertzeko egon daitezkeen zailtasunengatik -lehenago edo geroago denok ulertzen dugun zerbait baita- mugengatik baizik... Sarean eginiko lanak badu zerikusi handia, batez ere, esparru honetan elkartearen arteko lana asko zailtzen duen beste errealitate batekin: denboraren erabilgarritasuna”.

Bestalde sarean eginiko lanari buruz dihardugunean plataforma bera osatzen duten entitateen arteko sare-lanaz gain, elkartearen elkartetik haraindi dauden beste elkartzere-errealitateekin eginiko lana ere adierazi nahi da.

“Baina elkarteek ere aintzat hartzen gaituzte, hau da, Harresiak Apurtuz⁵ elkarteak plataforman jartzen du arreta eta Sozial Hitz⁶ jardunaldietan parte-hartze oso interesgarria gonbidatzen zaie plataformakoei. Baina beste kolektiboek ez dute sekula Getxoko etorkin-kolektiboa gonbidatu, Romo inguruko gogoeta foro batzuk, Agora kolektiboak, bat batean denek gonbidatzen dute”.

Sarean eginiko lan honek plataforma osatzen duten elkartearen ezagutza, errekonozimendua eta gizartean agerian egotea ahalbidetzen du. Elkarren artean eginiko praktikek eta jarduerak elkarren arteko ikaskuntza eta jabetasuna ere ahalbidetzen dute^{5/6}.

⁵ Euskadiko etorkinen laguntzarako GKEen koordinadora.

⁶ Harresiak Apurtuz erakundeak hainbat laguntzekin urterotik antolatzen dituen jardunaldiak dira, eta bertan immigrazio-eremuan pil-pilean dauden gaiak lantzen dira.

"... Plataformak sare bat sortu du, eta hori ukaezina da. Sare horrek hainbat elkartetan daudenen artean nork bere burua laguntzeko prozesuak irekitzen ditu eta elkarte hauen laguntza beharrak atzematen ditu. Plataformak eremu hori eskaintzen die, eta hori zoragarria da. (...) Errekonozimendu-maila, esku hartzeak eremu horietan kokatzen dituen errekonozimendu-maila ematen du".

Dena den, plataforma gizartean agerian egotearen eta honek eskatzen duen sarean eginiko lanaren izenean hasitako lanarekin jarraitzeko beharra jartzen da agerian, Udalako teknikariaren hitzetan.

"Beraz, elkarte gehiago gehi daitezten edo eta elkarte hauek zer diren definitzeko plataforma gizartean agerian egoteko lan egin beharko genukeela uste dut. Plataforma ez da gizartean ondo agertzen (...)".



VIII. Taula. Parametroa: Etorkizuneko erronkak eta helburuak		
Adierazleak	Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Sendotzea.	Elkarrekin eginiko ekintzak. Batzorde-lana. Erantzukizun partekatua.	Lidergo pertsonalizatuak.
Mendekotasunik eza.	Erronka propioak.	Mendekotasuna.

Sendotzea

Etorkin-elkarteek entitate eta plataforma gisa partekatutako proiektua egonkortzeari eta proiektuari jarraipena emateri ematen diote garrantzia. Elkarrekin eta plataforma bera jarraipen bokazioarekin sortzen diren interakzio eta parte-hartze eremuak dira, eta sendotzen doazen heinean erantzukizun partekatuaren bidez elkarren arteko ekintza dute gogoan eta horren alde egiten dute lan. Honela adierazten digute.

“... Erakunde gisa jokatu nahi badugu gure kolektiboen berezko erronkei aurre egiteko elkarren arteko ekintzak planteatu behar ditugu”.

“Batzorde bidez eginiko lan hau ondo iruditzen zait. Erdietsi dugun lorpen bat da. Horrela lehendakaritzak ez du bere gain hartzen lan guztia”.

Horretarako, entitateetako partaideek erantzukizunak, konpromisoak eta eginbeharrak euren gain har ditzaten jarraitu beharko da lanean. Horrela, lidergo pertsonalizatuak alde batera utziko dira. Elkarrekinetako batzuen hitzetan.

“Konpromisoa, norbera etortzen ez denean beste inor ez delako etortzen. Konpromisoa. Eta beti, betikoak ematen dugu iritzia. Hain lan-talde anitza izanik, kultur aniztasuna ikaragarria da”.

Mendekotasunik eza

Ekimen eta erronka propioen bitartez elkarteek eta plataformak modu aktiboan hartu nahi dute parte gizartean. Hori dela eta, ez dute euren burua proiektuen edo prozesu baten jardueren hartzaile pasibotzat ikusten, prozesu horren partaide eta ahots baitira.

“Ekimenak beti plataformaren baitatik atera dira. Bistan denez, prozesu bat zegoen, ez genekien karguek zein betebeharrak zuten, etab. Hori dela eta Fundazioak erabakiak hartu zituen. Honek balio izan digu. Are eta gehiago, hurrengo bileretan hori kontuan izango da. Bakarrik ibiltzeko garaiak egon, badaude”.

Etorkin-kolektiboen autonomia sustatzeko eta egonkortzeko asmoz sortzen da laguntza-prozesu hau. Dena den, laguntza-prozesu honen helburuak ez dira estatikoak eta sortzen diren aldaketei egokituaz doaz. Horrela adierazten du Fundazioko teknikari batek:

“Lana egiten dugun eremu horietan aldaketari egokitu behar gatzazkiola uste dut. Zera esan nahi dut: ezin dugu esku hartu Getxon lehenengo urtean esku hartzen genuen bezala, ez du zentzurik. Horrela udalarekin eta elkarteekin batera birkokatzen joan beharko gara, kaketan artean, desagertu arte. Asmoa gure presentzia beharrezkoa ez izatea da”.

Beraz, entitateen autonomia eta jabetasun horien lorpen eraginkorraren izenean alde bakoitzaren eginkizuna adostu ahal izateko prozesuaren aldean arteko hartumana eta elkarriketa -elkarre-hunaren, Ellacuria Fundazioaren eta udal administrazioaren artekoa alegia- prozesu horren gakoetarikoa bat izango da.

Zeintzuk dira esperientzia honen kolektibo protagonista?

Bilboko kasuan bezala orain “Inmigrantes de Getxo - Getxoko Etorkinak” plataforma osatzen duten elkarteak aurkeztu nahi ditugu. Elkarte horietako partaideen jardunak eta ahaleginak ahalbidetu du plataforma honek eskaintzen duen espazioa. Era berean nahiz eta lan honetan jaso ditugun ahotsak elkarte guztiak ez bildu -eta

beraz zenbaki aldetik inor ez ordezkatu- urte hauetan eginiko lanari esker ordezkagarritasun kritiko bati buruz hitz egin dezakegu. Agertzen eta formulatzen doazen -eta alde horretatik Plataformari berari bizia ematen dioten- beharrez, bizipenez eta gaitasunez osaturiko andana dagoela esan nahi da.

- Arahma elkarte
- Egintza elkarte
- Adrebol elkarte
- Ammi elkarte
- Pagkakaisa elkarte
- Berdintasuna elkarte
- Sikap elkarte
- Schams elkarte
- Bilboko Elizbarrutiko Caritas
- Suyana dantza eta musika elkarte kulturala
- Kosmopolis elkarte
- Perualde elkarte

2.3. Ondorio modura: ulermen-gakoak eta etorkizunera begira egin beharreko ikaskuntzak

Jarraian sistematizatutako lehen bi espazioetan Ellacuria Fundazioak izandako esperientzia nolabait ulertu arazten lagun diezaguten ondorio-sorta aurkeztu nahi genuke: Getxo eta Bilbo. Esperientziaren ikuspegi zabalagoa lortzen lagun diezaguten gako-sorta ireki eta aurkeztu nahi genuke, horrela urte hauetan gertatutakoaz ikas dezagun.


Eginiko azterketak bi sailetan banatu arazten digu ikasitakoa. Dena dela, nahiz eta ikusiko dugun bezala, biak elkar lotuta egon, zergati praktikoak direla medio, guk bereizi egingo ditugu. Lehen saila etorkin-elkarteen barne-egoerari dagokio. Elkarreak osatzen dituzten pertsonen egoera derrigorrezko abiapuntua da bi arrazoiengatik, batik bat: lehenik, elkarreei berezkoa zaien oinarri honek elkarrearen baitako dinamiketan eta funtzionatzeko moduan eragina duelako, eta bigarrenik, dinamika hauek Fundaziotik egiten den elkarlanean eragina dutelako.

Elkarreen izatea, egonkortasuna eta lan egiteko era hainbat eragileren menpe dagoela nabarmena dirudi.

1. Etorkinak izanagatik elkarreetako kideen egoera. Etorrerako gizartean etorkinek hainbat arazori egin behar diete aurre. Arazo hauen artean dauden arazo legalek, ekonomikoek eta familiarrek pertsona hauek elkarreari eskaini diezaioketen konpromisoan eta jardunean eragin larria dute. Ezbairik gabe hau

immigrazio-prozesu bati ekin dioten pertsonengan begien bistakoa da, baina era berean, nahiz eta neurri batean egoera hau gaingitu, berririo gerta daiteke. Horrela, maila lokalean zein globalean ematen ari den krisi ekonomiko larri honek ere elkarteak osatzen dituzten pertsonen egoerarengan egun eragin garrantzitsua izan dezakeela azpimarratu behar da.

2. Azpimarratu beharreko beste gai garrantzitsu bat askotan elkarteetan baita dauden gehiegizko lidergoei eta pertsonalismoei buruzkoa litzateke. Alde honetatik, eta gertatzen diren interesen arteko gatazkak kontuan izanik, elkarteek **bitartekoak edo lanabesak** eskatzen dituzte, **gatazkak ebazteko eta beraien artean komunikazio eraginkorragoa lortzeko**. Alde batetik, gai honi buruz ari garenean gatazka hauen sorrera **jatorriko kulturak eta gizarteak kontuan hartzen dituen begirada** batekin aztertu behar dela nabarmendu beharreko kontu bat da. Eta hau guztia elkarteetan baita sortzen diren egoeretako eta dinamiketako askok jatorrizko egoera politikoekin, sozialekin edo etnikoekin zerikusia dutela dirudielako. Aurre egin nahi diogun arazo horren ulermen orokorragoa ahalbidetuko luke begirada honek -nahi ezkerro transnazional dei diezaiokegun begirada honek-.
3. Azkenik, elkarteek elkartekideen konpromiso handiagoaren beharra dutela aipatu behar da, baita elkarteetan jardueretara pertsona gehiago batzearen beharra ere. Boluntariora eta honen muga arazoak eta langile liberatuen faltak ere elkarteetan funtzionamenduan eta lanean eragin garrantzizkoa dute.



Dudarik gabe, elkarteetan arteko indartze-proiektuaren testuingurua dela eta, orain artean esandako guztiak elkarteek Fundazioarekin duten harremanean eragin zuzena du Bigarren saila da hau. Bertan neurri handi batean lehen sailean argitutako

elementuetan jatorria duten elementuak azpimarra ditzakegu. Bi elementu aurkeztu ditugu, laburpen modura:

1. Elkarteen erritmo eta denborak: elkarteen eta Fundazioaren arteko harremanaren eta lan konpromisoaren giltzarrietako bat elkarte bakoitzaren denborak gogoan hartzea da. Elkarte bakoitzak bere erara eraikitzen ditu denbora hauek. Eraikitze lan honen abiapuntua ondorioetako lehen sailean adierazi ditugun hiru elementuak dira. Hau horrela izanik, elkarrekin eta administrazioek adierazten duten modura, Ellacuria Fundazioak elkarte bakoitzari egokitutako lana egiten du. **Duen garrantzia gogoan hartuz gero, jada egonkortuta dagoen ikaskuntza da** honakoa.
2. Mendekotasun-harremanak: elementu hau nabarmentzen dugu gure sistematizazioaren hiru protagonista nagusien diskurtsoan leku nagusia betetzen baitu (elkarteen, Ellacuria Fundazioaren eta administrazioen diskurtsoan, alegia). Elkarteen eta Fundazioaren arteko indartze-prozesuaren testuinguruan sortzen diren mendekotasun-harremanek elkarteen jabetasun- eta autonomia-prozesua geldiarazi dezakete. Fundazioak zein elkarrekin batzuk gogoeta hau egitea harreman hauen alde negatiboak indargabetzeko lehen urrats garrantzitsua da jada. Etorkizunari begira gogoeta-bide honetan sakondu beharko litzateke eta **elkarte bakoitzaren erritmoak eta denborak ahaztu gabe, autonomia maila altuagotara daraman mendekotasun eza lortzen lagun dezaketen mekanismo zehatzak proposatu behar lirateke.**



Azkenik, jasotako balioespen hain positiboagatik Fundazioaren eta elkarteen beste lan-eremu bat ere nabarmendu behar da: sarean eginiko lana. Laburbiltzeko, Kultur Batuak elkartearen zein Getxoko Plataforman izandako esperientzietan, bietan sarean eginiko lanak zera sortzen du:

- **Indartze** handiagoa.
- Nortasun garatuagoa sortzea.
- Gizartean ageriagoan egotea.

Horrela, sarean eginiko lanak dakarren ikaskuntza positiboa azpimarratu behar da, etorkizunari begira lanean, behin eta berriz ekiten eta ildo hau zabaltzen jarraitzeko.



3. Sareez osaturiko espazioa: “Munduko Jendeak Jaialdia” egitasmoaren esperientzia


Munduko Jendeak jaialdiaren testuinguruan eginiko sistematizazioa aurkeztuko dugu jarraian. Jaialdi honek eratzen duen espazioa orain arte landutako bi espazioak ez bezala eraikitzen da. Une batez Ellacuria Gizarte Fundazioaren 2009-2011 Plan Estrategikoari erreparatzen badiogu, entitatearen ikuspegia osatzen duten helburuen artean sareetan parte-hartzeari dagokiona aurkitzen dugu. Bertan zera esaten da: *"Instituzioen arteko koordinazioa zaintzea eta beste gizarte-instituzioekin sarean eginiko lana indartzea, modu eraldatzailean esku hartzeko gizarartean"*. Era berean, Fundazioan lantzen diren prozesuen artean bada Eragina izeneko prozesu bat. Bertan, beste askoren artean, Sentiberatze lan-ildo edo estrategia-ardatza aurkitzen dugu. Sentiberatze izeneko prozesu honetan proposaturiko helburuek erakundeen eta sareen arteko loturak eta sinergiak ezarri nahi dituzte, ikaskuntzak eta elkarlanak sortzeko.

Sareetan parte hartzea sustatu nahi duen ildo honi jarraituz, Ellacuria Fundazioak, hain zuzen ere, "Afrika behar-beharrezkoa", eta "San Frantziskoko Koordinadora" plataformetan, "Harresiak Apurtuz" entitatean eta "Munduko Jendeak Jaialdian" hartzen du parte. Maila lokalean eginiko sare-lanak duen garrantzia azpimarratzea beharrezkoa da, eremu hau leku estrategikoa baita parte hartzeko, gizarteratzeko eta hiritartasunerako eskubidea erabiltzeko. Sistematizazio-prozesu honetan Ellacuria Fundazioaren parte-hartzea aztertzeko "Munduko Jendeak Jaialdia" egitasmoaren espazioa aukeratu dugu. Askotariko eremua da eta jolas- eta jai-giroaren bidez Bilboko auzokide berrien presentzia eta parte-hartzea nabarmendu eta aldarrikatu nahi du.

Jaialdia Bilboko etorkin-elkarteen eta elkarte hauei laguntzen dieten GKEen ekimenez sortu zen 2007an. 2007ko azaroaren 25ean BECen (Bilbao Exhibition Centren) izan zen lehenengo Jaialdia, eta egun osoa iraun zuen. 25 erakundek antolatu zuten eta egun osoan zehar 8.000 pertsona inguru bertaratu zen.

Bigarren urtean, Jaialdia 2008ko ekainaren 23a eta 29a bitartean ospatu zen. 41 gizarte-erakunderen artean antolatu zuten. Horien artean erakunde euskaldun batzuk ere bazeuden. Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak, Bizkaiko Berdintasunerako eta Herriararren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusiak eta Bilboko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarretako Sailak ere ekimenean hartu zuten parte

Ekainaren 28tik 29ra Bilboko Areatzan izan zen topaketan jai-giroan bukatu zen jaialdia. Bi egun horietan 20.000 lagun inguru hurbildu zen festara. Bilboko Areatzan kontzertuak izan ziren, munduko hainbat lekutako dantzak eta folklorea ere, hainbat jatorritako jakiak dastatu ziren eta parte hartu zuten lagun eta gizarte-elkarteen jatorriko herrialdeei buruzko informazioa jaso zen.



64

ritza Teknikoa ere badago. Batzarrak eta ahotsa eta boto-eskubidea duten hiru administrazioeko ordezkariak aukeratutako hiru entitatez osatzen da mahai hau.

Ellacuria Fundazioa 2009an hasi zen “Munduko Jendeak Jaialdia” egitasmoan parte hartzen, hirugarren urtean alegia. Urte hartan jaialdiak gizartea sentiberatzeko espazio bat sortu nahi zuen, kultura-ezagutza eta bertako eta Bilbon bizi diren etorkinen askotariko taldeen arteko hartu-emanak sustatzeko. Jai-giroko espazio honen bitartez elkarren arteko balioespena, errespetua, elkarriketa, adiskidetasun-harremanak, eta abarrak erraztu eta bultzatu nahi ziren, horrela herritarren bizi- eta harreman-kalitatea hobetzeko.

Hau guztia dela eta, Jaialdiaren filosofia eta helburuak kontuan izanik, Ellacuria Fundazioak bertan parte hartzea erabaki zuen. Era berean, elkarlanean ari ginen beste elkarteen parte-hartzea errazten zituen sinergiak sortzeko aurrera pausua zen. Beraz, Jaialdiaren sistematizazioa baino, Ellacuria Fundazioaren sare-lanaren testuinguruan Fundazioak Jaialdian duen parte-hartzearen sistematizazioa da honakoa. Sistematizazioaren atal honen protagonistak hiru izango dira: Fundazioa bera, Bilboko Udala eta Jaialdian parte hartzen duen entitatearen bat.

Gure ariketa hau aurrera eramateko 2009 eta 2010 urteak hartuko ditugu kontuan. Bi urte hauetan Fundazioak “Babel Dorrea” taldearekin bi ekintzekin hartu du parte. Aniztasunaren testuinguruan gizarte inklusibo baten eraikuntzan pertsonen pertzepzioak, iritziak eta ekarpenak jasotzen zituen dinamika egin zen 2009an. Esperientzia DVD euskarrian jaso zen gerora. “Gure kultur aniztasunari buruz hitz egin dezagun”⁸ izeneko World kafea egin zen bigarren urtean.²

Hastapenak. Zeintzuk izan ziren hurrengo pausuak?

Sistematizazio ariketaren protagonistak eta aztertu beharreko denbora-tartea erabakita eta beharrezko dokumentazioaz gain, gure protagonisten ahotsak eta esperientziak eskuratzen lagun ziezagukeen metodologia diseinatzeari ekin genion. Kontua ez zen urte horietan zeharkatutako prozesuari buruzko materiala berreskuratzea, prozesu horiek protagonistengan izan zuten esanahian sakontzea baino. Hau horrela izanda, izaera irekiko hiru elkarriketa landu zituen metodologia kualitatiboari ekin genion.

Elkarriketetako bat Munduko Jendeak Jaialdiko parte-hartzearen ardura izan zuen Ellacuria Fundazioko teknikariari egin zitzaion. Bigarren elkarriketa Jaialdian parte

⁸ Ikus II eta III eranskinak.

hartu zuen udaleko bi teknikariei egin zitzaien eta azkenik, hirugarren elkarriketa Jaialdian parte hartu zuten entitateetako partaide batekin izan zen.

Informazio esanguratsua jasotzeko gidoi bat prestatu zen, eta hauek izan ziren jasotako gaiak:

- Munduko Jendeak Jaialdiaren historia eta garapena.
- Esperientziaren balioespen orokorra.
- Erronkak eta zailtasunak (baliabideak, komunikazioa, denborazkoak, bestelakoak, etab.).
- Jaialdiaren baitan Ellacuria Fundazioak eginiko ekintzen eta esperientzien alderdi positiboak eta hobetu beharreko alderdiak.
- Esperientziaren protagonisten arteko harremana eta komunikazioa; balioespena, zailtasunak, hobetu beharreko alderdiak, etab.
- Munduko Jendeak Jaialdian Fundazioak izandako parte-hartzeari buruzko pertzepzioak.
- Bidea egindakoan ikasitakoa.

Azterketa

Elkarriketak egin eta gero prozesuaren garairik garrantzitsuenari hasi zen: azterketa. Prozesuaren garai honek gertakarien azalpen huts batetik hurbilpen kritikoago batera joatea ahalbidetu behar gintuen gainera, “Munduko Jendeak Jaialdia” sarean Ellacuria Fundazioak izandako parte-hartzearen azterketa kritikora, alegia. Azterketa honi ekiteko, lortutako materiala eta elkarriketetan adierazi eta eraiki ziren irizpideak sakonenean aztertu eta gero, testuingurua edo egitura zedarritzen lagun diezaguketen lau ideia orokor definitzen saiatu gara. Gero nabarmendu beharreko gai-sorta identifikatu dugu eta gai hauetan oinarrituz sistematizazio-prozesuaren partaideek esandakoa aztertu dugu, bizitako esperientzien berri ematen digun testu bat sortzeko.

“Munduko Jendeak Jaialdia” egitasmoan aurkeztu diren ekintzak

Berez “Munduko Jendeak Jaialdia” errealitate askotarikoa dela esan behar dugu. Jaialdi hau askotariko entitatez eta instituzioz osatuta dago, eta, gertatu ohi denez, ez dute beti

proposatzen diren ekintzen helburuekin edo ikuspuntuekin bat egiten. Jaialdiaren bera-
ren proposamenetan eta dinamiketan adierazten da aniztasun hori eta batzuetan inte-
resen arteko gatazka jakin batzuk sortzen dira. Elkartetako batzuek Jaialdi honetan jo-
las- eta jai-giro handiagoa lortu nahi duten bitartean, beste batzuek gogoeta, elkarriketa,
elkarren arteko parte-hartzea eta abarra helburu dituen giroa dute begi-bistan. Esan-
dakoarekin espazio honen gatazka-egoera nabarmendu baino, askotariko egoeretatik
eta askotariko hizkuntzetan aditzera ematen diren hainbeste ahots anitzak elkarlanean
batzeak duen garrantzia eta honek eskatzen duen erronka nabarmendu nahi ditugu.

Jaialdian proposatzen eta egiten diren ekintza gehienek folklore izaera dutela egia da:
ohiko dantzak, jatorriko herrialdetako jaki eta edariak, musika emanaldiak, desfileak,
etab. Elkartetako batzuek aipatutako folklore kutsua duten ekintzetatik urruntzen
diren ekintzak aurkezten dituztela ere egia da. Hala ere elkarriketa guztietan an-
tolatzen diren ekintzen aukera zabaldu beharra azaldu da. Immigrazioaren gertaka-
riaren gai eta errealitateari buruzko gogoeta sakonago bati aurre egiten dioten eta
sentiberatze-betekizuna duten ekintzek zabalduko lukete ekintza aukera hori.

*"... Ekintzak proposatzen dituen elkarteetako bat da (hemen beste irudikapen
mota bati lekuri ez kentzearen arazoarekin egiten dugu topo, baina topake-
tarekin eta kultura artekotasunarekin zerikusia handiagoa duten ekintzen di-
seinuan aurreratu daiteke) eta urteotan Ellacuria halako ekintzak planteatu
dituen elkarteetako bat da".*

*"... Beste norabidean hazteko gaitasuna eskaintzen dute, batzarreko gabezien artean
hau da gabeziarik handienetakoa".*

*"... Baliabide gehiegi folklore hutsean bilakatutako jaialdi batentzako. Hasiera batean
egia da euskal gizarteko etorkin-kolektiboa agerian uzten duela gizartearen aurrean,
baina gogoeta hau eginez urrats bat gehiago eman behar genuela eta Jaialdia ezin
zitekeela horretara murriztu ondorioztatu genuen iaz".*

Hitz hauetan Fundazioaren parte-hartzeak balioespen oso positiboa izan duela ikus
dezakegu. Izan ere, Jaialdiaren eremuan aurkeztu eta egin diren ekintzek sentiberatze-
esperientzia bati erantzuten diote batetik , eta bestetik, gogoeta izaera handiagoa
duen ekintza bati. Gainera, betidanik ekintza hauetan ahalik eta parte-hartze han-

diagoa bilatu denez Fundazioak “Babel Dorrea” taldearekin egin du lan besoz beso. Jaialdian parte hartzen duen teknikari baten hitzetan.

“... Ellacuriak planteatu ditu ekintzak, baina ez ekintza itxi modura aukera-sorta modura baino. Aurretik Ellacuria lan-taldearekin eta elkarlana posible zen entitateekin kontsulta egin zen, ekintza horien artean aukera gehien zeinek zuen edo jendearen parte-hartze handiagoa zeinek ahalbidetzen zuen ikusteko”.



Eginkizunak eta espazioak

Jaialdia askotariko elkarteez eta entitateez osatuta dagoela aipatu dugu aurreko paragrafoetan, baita beti norabide berean ez doazen interesak jokoan daudela ere. Jaialdia osatzen duten elkarten artean bi bakarrik dira laguntza-entitateak (Caritas eta Ellacuria Fundazioa) eta gainontzekoak, hiru administrazioak salbu, etorkin-elkarteak dira. Hori nabarmentzekoa den zerbait da. Elkarteetatik sortzen diren helburuei eta egin beharreko ekintzei buruzko ikuspegi-aniztasuna ere aipatu dugu.

Aniztasun honen aurrean askotan pizten da honako galdera: Ellacuriak nola hartuko du parte? Non eta nola kokatu nahi du Ellacuriak espazio honetan? Puntu honetan, Ellacuria Fundazioaren parte-hartzearen inguruko halako definizio falta adieraz dezakegu. “Mun-

duko Jendeak jaialdia” ekimenean Ellacuria Fundazioak “norantz” eta “nondik” hartzen duen parte -eta Fundazioa “nondik” datorren eta “norantz” doan- galderei erantzuten lagunduko digun gogoeta-ariketa egitea beharrezkoa da agian.

Dena dela, nahiz eta batzuetan Jaialdiaren baitan Fundazioak bete beharreko eginkizuna eta espazioa kezkarekin ikusi, “Munduko Jendeak Jaialdia” egitasmoan Ellacuria Fundazioa bezalako entitateen parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen duen ideia partekatua dagoela azpimarratu behar da. Elkarriketatutako entitate bateko kideetako baten hitzetan.

“... Denak egotea garrantzizkoa da niretzat, azkenean erabakiak denon artean hartu behar baititugu; gero eta pluraltasun handiagoa egon, hobeto; eta kontua ez da denak gauza bera egitea. Desberdintasunean berdintasuna. Zuk nirekiko desberdin pentsatzea aberastasuna da, errealitateari aurre egiteko ikusmolde homogeneousk eskaini diezazkigukeenak baino modu gehiago baititugu, begirada gehiago, irtenbide gehiago”.

“... Hainbat laguntza-erakundetan hartzen dut parte. Horietako guztiek eta elkar-teak beraiek espazioak nahasten dituzte, espazio hauen eginkizunak eta nireak zein izan behar duten nahasten ditugu”.

Jaialdiaren dinamika berak, batzuetan eta baldintza jakin batzuk direla eta, espazio horretako leku bat hartzera bultzatu du Fundazioa, nahiz eta guztiz eroso ez sentitu bertan.

“...Ellacuria beti joan da batzarretara eta iaz arte sekula ez du kargurik hartu ez Batzarrean ez eta Koordinatze Mahaian ere. Uste dut zertxobait desberdina izan zen dinamika batean sartu ginela iaz. Hau ere ez zen batere eroso izan Ellacuriarentzat, bi arrazoiengatik batik bat: nahi baino protagonismo handiagoa izan genuelako eta aurreko kudeaketa nahiko txarra izan zenez Administrazioari hainbat puntu argitu behar izan genizkiolako”.

Fundazioak uste du, galderak galdera, elkarteen ondoan egon behar duela eta elkar-teak lagundu behar dituela, beste elkar-teek ez duten bitarteko teknikoaren eta materialen eta giza baliabideen jabe delako.

“... Ellacuriak beti bigarren mailan egon behar duela uste dut, agian “ezkutatuagoa” den lan bat egin behar duela alegia. Ez horrela izan behar duelako, laguntza-zeregina dugulako baizik, “bultzada” emateko balio izatea. Ellacuriaren zeregina entitateen ikuspegia irekitzea eta entitateei laguntzea dela uste dut, gauzak egin ditzakegula elkar ikustaraztea”.

Gaitasunak

Aurreko atalarekin oso lotuta, etorkin-erakundeen eta erakunde hauei laguntzen dien elkarteek gaitasunen arteko aldeak ideia partekatzen da berriro ere. Gehienetan gertatzen da elkarteek gaitasunen arteko alde hau. Bilboko udalaren teknikari baten hitzetan:

“... Ellacuria Fundazioa urte bete egon da Jaialdiaren Koordinatze Mahaian. Ba azkenean parte-hartze aktiboagoa eskatzen da, gehiago parte hartzen duen parte-hartzea...”.

Elkarteek gaitasunen arteko aldeak hainbat arrazoitan dute zergatia, eta zergati hauen artean pertsonen egoerari buruzkoa oso nabaria eta pisutsua da. Bate-tik, etorkinen elkarteetan lagun guztiek boluntario egiten dute lan, hau da beraien astialdian eta guztiz dohainik. Gai hau zabal landu dugu jada, sistematizatutako bi espazioetan ikusi baitugu nola baldintzatzen dituzten elkarteek arteko dinamikak. Laguntza-entitateetatik parte hartzen duten pertsonak aldiz, liberatuta daude, eta nahiz eta proiektuan lana ohiko lan ordutegitik kanpo egiten badute ere, lan hau euren lanbide zereginetako bat da eta entitateak ordaintzen du. Gauzak horrela izanik, azken hauek lanari aurre egiteko denbora eta baliabide gehiago dituzte. Elkar-riketatutako entitate bateko kide baten hitzetan:

"... Elkarreetako partaideak boluntarioak dira. Ellacuriak jende liberatua du. Beraz, baldintzak ez dira berdinak eta hori ahuldadea da. Hau guztia administrazioetatik, Ellacuriatik eta elkarreetatik ikusi beharko litzateke: nola egonkortzen de MjJ, nahiz eta unean-uneko ekintza izan "Munduko Jendeak" nola urte guztian zehar bizirik dagoen".

"... Elkarreak iristen ez diren eremuetan Ellacuriak beste zereginak bete ditzake. Beste eginkizunak bete ditzake. Ba adibidez, diru laguntzen gaia, deialdiak... eta zergatik ez den prestakuntza-bide sendo bat irekitzen... eta laguntza-entitateetan ez bezala zergatik elkarreetan pertsonak liberatzen ez diren, militantzia modura egiten duten lan hori euren lanaren parte izan dadin".

Ellacuria Fundazioak arazoa atzematen duela eta garrantzizkoena berreskuratu nahi duela argi dago: errealitateak berak markatzen duen erritmora joatea guztiok. Ellacuriako teknikariaren hitzetan:

"...laguntza-elkarrekooi langile liberatuak garela aurpegiratzen digute batzarretan, baina nire liberazioa kontutan hartuko balitz, batzuetan nahiz eta nire ordutegia ordu jakin batean bukatu batzarretan 21:00ak edo 22:00ak arte gaude, edo eta asteburutan... batzuetan korapilatsua da, funtzionarioak baitaude, jende liberatua eta gehienek euren astialdia ahal duten moduan eskaintzen dute".

"...Ellacuriak askoz eta jarduera gehiago egin ditzake eta azkarrago, baina hori ez da helburua. Guztiokin astiro joatea da helburua, nahikoa entitate baitira, bakoitzak bere interesak dituela".

Etorkizuneko erronkak eta helburuak

Gaur egun Munduko Jendeak Jaialdia barne-gogoeta garai batean dagoela esan daiteke. Barne-gogoeta hau egitasmoko partaide askok sustatu dute, urte hauetan jarraitutako eta erabilitako formatuak etorkizunean izan dezakeen baliagarritasuna auzitan jarri baita. Testuinguru hau oso aukera ona izan daiteke Fundazioarentzat, beste elkarreetekin batera, zer nolako Jaialdia nahi de hausnartzeko. Era berean, prozesu honek Fundazioaren espazioa eta Fundazioak espazio horretan duen lekua argitzen lagunduko luke.

Ingurumaria honetan, egiten den lana era bat dago zuzenduta “Munduko Jendeak Jaialdia” prestatzera, baina elkarreentako kide asko kezkatuta daude, urte beteko lan hori guztia urteko astebetean zehar egiten diren jardunaldietan gauzatzen baita. Askoren ustetan egun horietan gauzatzen denak helmen handia duen lana izan behar du. Gogoeta-, prestakuntza- eta sentiberatze-prozesuak bezala, lan honek urte guztikoa izan behar luke.

“...Zalaparta hau guztia ezin daiteke hiru hilabetetan zehar prestatu eta hiru astetan antolatu, urte guztian zehar ere ildo hauen aldeko apustua egin behar dugu oster...”

Elkarriketatutako entitateetako entitate bateko kide baten hitzetan, errealitate honek orain arte jarraitu den eredua birpentsatzearen beharra jartzen du mahai gainean.

“... Beste formatu bat, beste eredu bat izan behar dugu gogoan. Eta hori da denon artean aurten eraiki behar duguna, zer nolako eredua nahi dugun, alegia. Eta horrek bilerak behar ditu, prestakuntza, eztabaida- eta gogoeta-saioak, gogoeta sakona bai-na. Denboran zehar sendo iraungo duen zerbaiten alde egin dezagun apustu”.

Gauzak horrela, gogoeta izaera handiago duen ildo hori urte guztian zehar landuko duten Batzordeak sortzearen aukeraren edo abaguneraren bat irekitzen hasi da batzarretan. Ellacuria Fundazioaren teknikariak azaldu digunez.

“... Zeharkako ildoei buruz hitz egiten hasi zen, gaia elkarren artean lantzeari buruz. Honek orde aurretikako lana eskatzen zuen; hau da, entitate batek iradokizuna egiteak ez du balio jada, izan ere, jarduerak denon artean erabakiko lirateke aurrez, Batzordeetan...”

“... Batzordeen gaiarekin Ellacuria erosoago egon daiteke eta jarduera gehiago egin eta bultzatzen ariatuak bilatu ditzake”.

lazko Jaialdian urte guztian zehar lana egingo duen batzorde iraunkor bat sortzea erabaki zen. Abiapuntu diren kezek hainbat gairekin dute zerikusia eta hauen artean Jaial-

Ondorio modura: ulermen-gakoak eta etorkizunera begira egin beharreko ikaskuntzak

Fundazioari dagokionez, eta zehatzago esanda, Fundazioak Jaialdian bete beharreko lekuari dagokionez, Fundazioak Jaialdian izan dezakeen parte-hartzeari buruzko gogoeta-prozesuari ekiteko aukera ezin hobean egon gaitezkeela azpimarratzea interesgarria litzateke agian, batik bat Jaialdiaren egungo egoera kontuan hartzen badugu. Badirudi Jaialdira aldaketa garaia etorri dela. Garai honek Fundazioaren gogoeta ahalbidetzen duen atea ireki du: zer nahi duen eta nola hartu nahi duen parte.

- Nolakoa den nahi dugun gestio eredua eta koerantzukizuna administrazio publiko, etorkinen elkarteen eta laguntza elkarteen artean.
- Etorkinen elkarteek eta laguntza elkarteek zer espero duten administrazioarekin dituzten harremanetatik.
- Zer nolako jaialdi- eta espazio-eredu eraiki nahi den: elkarte bakoitzaren jatorriko herrialdeko edo eskualdeko -eta, gutxi edo asko bitxiak diren- bereizita-

sunak, usadioak eta ohiturak erakusten dituen askotariko kulturez osatutako espazioa? Ala aniztasuna herritartasunaren erabilerarekin uztartzen duen espazio baten eraketaren alde egiten duen kulturen arteko jaialdia?

Nahiz eta beti errazak ez izan, konplexuak diren galdera hauei heldu beharko die Ellacuriak eta bere buruari itaundu Fundazioaren beraren printzipioen, helburuen eta xedeen testuinguruan.